

HAMABOSTEKARIA 160. zenbakia 1999ko ekainak 4

GOIERRITARRA

**XXI. mendeko
alkateak**



**UDA HONETAN, ANTZIZAR KIROLDEGIAN
MURGILDU ZAITEZ
UDA HONETARAKO
AUKERA
FRESKAGARRIENA**

Horrela jaio da Harlandu, bere abangoardiako teknologiari inizatiba eta bere profesionalen taxua batu dizkion kooperatiba.



Harlandu S.COOP

Marmolak
Granitoak
Harriak

Marmolak
Granitoak
Harriak

Zubierreka industrialdea, 52 • LAZKAO
Tel.: 943 882 465 • Tel. eta faxa: 943 887 249

MARMOL, GRANITO ETA HARRI LANAK • SUKALDE ETA BAINUKO GAINAK • FATXADA ETA ZORUEN ESTALIAK • LAPIDAK

**...ARGIA JOAN EGIN ZEN ETA
JOATEZ BAT, GARRASI IKARAGARRI BAT
ENTZUN ZEN GAZTELO OSOAN. ESKAILERETARO
MAILA ERAS EUTEN HAZI ZIREN ETA TRIMISTA BATER IRAGOTZEN
DUTRIKOLAKI LAUTZEN. HAZI ZENAREN ERUPITU BIZIKARRIA ERABITU ZIUN.
BARRERAKOAN ZEN. ARGIA OTORRI ZEN BARRERA ETA OTORRI OTORRI BARRERA BARRA BARRA.**

lente
PROGRESIBORIK
onenak
VARILUX®
ESSILOR lente bat

goza ezazu
egokitzapen
BERMATUAZ

Distantzia guztietara irakurtzeko
zailtasunak badituzu, hurbil zaitez
MultiOpticasera

3 hilabetean ordaindu ERREKARGURIK GABE

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 - BERGARA
Tel. 943 76 15 75

J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
Tel. 943 79 29 95

J. M. Barandiaran Enp - ORDIZIA
Tel. 943 88 99 88



EGUZKITARAKO
Belaurrekoa
3.500 pla-hik aurtera.



**GRADUATUTAKO
EGUZKITARAKO**
Betaurrekoa
8.900 pla-tik aurrera



Belaurreko osoa, graduahuta
8.900 *pla-lit aurtera.*



VOLKSWAGEN LUPO BATEN ZOZKETA

5.000 PTALo EROSKETA BAKOTZEKO TYARTEI RAT

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierritarak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 943 88 96 12
Faxa: 943 88 27 19
<http://www.ordizia.net>

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Joseba Etxezar-
reta, Josune Amondarain, Urko
Irastorza, Edurne Albizu, Nagore
Etxeberria, Agurtzane Bikuña,
Saroí Jauregi, Iñaki Gurrutxaga,
Aitziber Murua, Miren Etxezar-
reta eta Iñaki Murua.

**Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Gertu inprimategia
(Zubillaga auzoa, Oñati).

Tirada: 7.600 ale.


ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



**Aralarko artzainak txabola
berrien eta bideen eske**

Aralarko artzainek txabola berriak eta bideak nahi dituztela aldarrikatu zuten maiatzaren 26an Donostian emandako prentsurrekoan. *"Neolitikoaren argazkia gorde eta zabaldu nahi dute baina guk ez dugu neolitiko garaian bizi nahi"*, adierazi zuten artzainek.

Turismoa bultzatzen eta artzaintza baztertzen ari direla ikusten dute artzainek eta *"pazientzia agortzen"* ari zaie. *"Aralar parte natural izendatu eta erakunde gisa aurrekontu propioa duenetik, artzaintzara bideratutako dirua ez da % 20ra ere iristen. 1997an, esaterako, 50 milioi pezeta erabili zituen parkeak Ataungo Lizarrustiko parke-
txea martxan jartzeko eta 20 milioi besterik ez artzai-
nen txabolak egokitzeke"*,

azaldu zuten.

Aralarko Gipuzkoako zatian 47 artzain ibiltzen dira udan. Txabolaren bat edo beste berritu badute ere, gehientsuenek ez omen dituzte duintasunez biziteko eta lan egiteko baldintzak betetzen. Txaboletara iriste-ko ere zailtasun handiak dituzte artzainek. Mandoekin egin behar izaten dute bidea.

Egoera honetan, Gipuzkoako Diputazioari eta Enirio-Aralar Mankomunitate-ari arazoari irtenbidea emateko eskaria egin zien. Prentsurrekoan adierazi zutenez, prentsurrekoa lehen protesta ekintza izan zen eta urtebetean arazoari irtenbiderik ematen ez bazaio, ekintzak gogortu egingo dituztela iragarri zuten.

BOTA BERTSOA



Irati Goikoetxea

(Goierriko bertso-eskolako
ikaslea)

**Udal
hauteskundeak**

Doinua: Aita izena

Kulturgunetan begia jarritz gune berdetan ametsa, herri xume ta langabetuei eskainiz bere babes, hitz egiteko uneoro prest eta entzule erreza, gaztetxe eta parkeen miran loratuz hainbat promesa, modu hontara marraztu dut udaleko alkatesa. (bis)

Gaingan dugu hil honetako hamahirugarren eguna, guztion nahia adierazteko aukeratua duguna, nire botua emana daukat zure txanda da laguna, kezka harilduz aurrera egin zure zain daukagu urna, herri zahar hau berritzea da guztion eginkizuna. (bis)

**Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

ZINEA

BEASAIN:

'Aun se lo que hiciste el ultimo verano'. Ostirala 4: 22:15; larunbata 5: 19:30 - 22:15; igandea 6: 19:30 - 22:15; astelehena 7: 19:30 - 22:15.

ORDIZIA:

'Aun se lo que hiciste el ultimo verano'. Ostirala 4: 22:15; larunbata 5: 19:30 - 22:15; igandea 6: 19:30 - 22:15; astelehena 7: 19:30..

'El inolvidable Simon Birch'. Igandea 6: 16:45.

MUSIKA

BEASAIN:

Ekainak 4, Musika Eskolako ikasle helduen kontzertua, Udaletxeko Batzar Aretoan, 19:30ean.

LEGORRETA:

Ekainak 5, Laguntasuna Errondailaren emanaldia, 20:30etik 22:00etara.

ORDIZIA:

Ekainak 4, 'Eunate' ikuskizuna Josetxo Goia-Arribete eta Pello Ramirezen (saxoa eta txeloa) eskutik, Barrenan, 22:30ean. Poltsikoko ikuskizunen barruan.

Ekainak 6, Beti Argi musika bandaren kontzertua, Enparantza nagusian, 13:00etan.

Ekainak 11, 'Apoaren edertasuna' ikuskizuna Joseba Tapia eta Koldo Izagirrerren eskutik, Barrenan, 22:30ean. Poltsikoko ikuskizunen barruan.

ZALDIBIA:

Ekainak 19, Joseba Tapia eta Koldo Izagirrerren 'Apoaren edertasuna' ikuskizuna, 22:30ean, antzokian.

DANTZAK

ORDIZIA:

Ekainak 6, Dantzari txiki eguna: 11:30ean desfilea auzo ezberdinetan. 13:00etan alardea Joxemiel Barandiaran plazan.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Ekainaren 6ra arte, Maria Jose Argiñanoren pintura erakusketa, Usurbe antzokian.

Ekainaren 11tik 20ra arte, pintura-tailerrekoen erakusketa, Usurbe antzokian.

Ekainaren 18ra arte, Mikel Izagirrerren pintura erakusketa, Aterpe tabernan.

Ekainean zehar, Argizpi argazkilarien elkarteko en 'Erretratuak' argazki erakusketa, Zineman tabernan.

EZKIO-ITSASO:

Ekainaren 13ra arte, Zaharkinak erakusketa, Santa Lutziko Kultur Etxean.

ORDIZIA:

Ekainaren 4tik 30era, Jean-Pierre Auberten pintura erakusketa, Barrenan.

ZALDIBIA:

Ekainaren 12ra arte, Haurrak eta artea erakusketa Kultur Etxean.

MENDI-IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Ekainak 6: Andatzara.

Ekainak 13: Lizarraga-Urbarasa.

Ordiziako mendizaleak:

Ekainak 5: Hiru Errege Mahaia.

Ekainak 13: Mugarra-Saibigain-Urkiola.

OSKARBI
OINETAKOAK



Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25
☎ 88 19 44 **ORDIZIA**

99ko UDA IKASTAROAK

GOIZTIRI  **EUSKALTEGIA**

MATRIKULA ZABALIK
EKAINAREN 25era ARTE

INFORMAZIOA

ORDIZIA: Santa Ana Ikastetxea ☎ 943 88 91 74
BEASAIN: Kale Nagusia, 5 - 3. ☎ 943 88 93 40

Eskola txikien eguna

Gipuzkoako eskola txikiek, Gabiria eta Zerainek barne, ekainaren 13an ospatuko dute Alkizan aurtengo Eskola txikien eguna. Egun honetarako prestatu duten egitaraua duzue jarraian:

10:00etan: Txalaparta. **10:15ean:** aureskua. **10:30ean:** Haurren emanaldiak. **Ondoren,** aizkolariak. **14:30ean:** Bazkaria. **Bazkalondoren:** bertsolarien emanaldia. **15:30ean:** Haur jolasak eta tailerrak. **17:00etan:** Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak. **Ondoren,** Tapia eta Leturia trikitalariak.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Salerosketak:

☐ Txakurrak oparitzen dira. 943 16 0402.

☐ Txakurkumeak oparitzen dira, boxer eta pastor belga arteko kruzekoak. Julen. 943 672909.

☐ Akordeoia salgai. Pigini-Convertor 42 B. Erdi prezioan. 943 465724.

☐ Cocker Spaniel ingelesa eskaintzen da arraza hobetzeko. Pedigree onekoa. 943 886164.

☐ Ford Fiesta autoa, SS-AM, salgai. Egoera onean. 943-881938. Arratsaldeko 6,30etatik aurrera deitu.

☐ Estetikako aparagaiak salgai. 943-885513. Arratsaldez edo gauez deitu.

☐ Esne kuota salgai. 943-180426 Gauez deitu.

☐ Pertsona helduak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko 28 urteko neska eskaintzen da. Esperientziaduna. Interesatuek dei 943 160126 telefonora.

Lana:

☐ Eskusoinuak konpon-tzen ditugu. Marka eta modelo guztiak. 943 4700001. 17:00etatik 19:00etar deitu, ostegunetan izan ezik.

☐ Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Euskalduna. 29 urtekoa. Esperientziaduna. 943 889521. Elena.

Etxebizitzak:

☐ Bi neska ikasle behar dira Bilbon pisua osatzeko. Deustun kokaturik dago, unibertsitatetik gertu. Oso alaia eta merkea. 617760857 / 943 887359 (asteburuetan).

☐ Etxebizitza salgai Segurako herrian, ongi kokatua. Salneurri eroso eta nahi izanez gero, baratza eder batekin. 943 801427 (Enara).

☐ Pisua salgai Itsason-don. 943 887482.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Atorrasagasti (Bustuntza - Ordizia) 943882934.

Ekainak 4-5, Cuesta (Nafarroa etorb. 39 - Beasain) 943 880587.

Ekainak 12-13, Atorrasagasti (Bustuntza - Ordizia) 943 882934.

IBAI-ONDO


Altzariak neurrira

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

ERAKUSKETA ☎ 943 88 05 43
Antzizar Auzoa, z/g BEASAIN



Garbitasunak

OXEPI

☎ 943 88 96 67 **ZALDIBIA**

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27



BEASAIN

IKASTEK AKADEMIA

Hezkuntzako profesionalak
goierritarren zerbitzuan

☎ 943 160 120

Joan Iturralde, 5
BEASAIN

1 Unibertsitate maila:

- ✓ Ingeniaritza
- ✓ Enpresa zientziak
- ✓ Fisika eta kimika
- ✓ ...

Logse (I eta II):

- ✓ Ikasgai guztiak
- ✓ Ekaina - uztaila - iraila
- ✓ Selektibitatea

Lehen eta bigarren hezkuntza:

- ✓ Ortografia
- ✓ Kalkulua eta buruketak
- ✓ Testuaren lanketa
- ✓ Ikasketa teknikak

Kurtsoan ondo gainditu gabeko gaien lanketa

Datorren ikasturterako prestatuta

Eskatu informazioa orain!

Filme berria... eta zaharra

Artikulo hau argitaratzen denean egun gutxi faltako dira 13rako. Iada hasita izango dugu norgehiagoka; nola hasita? Utzi al diote bada norgehiagokari duela lau urteko aldi hartatik?

Uste dut *batzuk* ahalegin gehiago egin dutela. Balaen ziztu hotsa isildu eta hitzaren goxoa aldarrikatu dute, edo hala izan dadin lagundu. Politikan askotan ikusten ez duguna ikusi dugu: indarrak batu eta gutxieneko helburuak adosten aritu dira. Atsegina da ikuskizuna.

Badira *beste batzuk* orde; horiek txakurrarenak botatzea beste erremediorik gabe dabilta. Lehen zeukaten aitzakiarik gabe (eta izkutuko eskupekorik gabe?) utzi dituzte. Lehen bortitzenak omen zirenei ematen zizkieten aholkuak berentzat ez dituzte atsegin. Beldurra eta ikara sortzea amets; Bosnia, Kosobo, Belgrade eta burura etorri ahala adibide jarri dizkigute. Guda zibila, Franco eta Urbasako leizea gogorazi. Ez dakit noizko eta nori aurkitu omen dioten agiriak egunkari interesatuei filtratu... Zergatik eta abertzaleak elkartzen hasi direlako. Ba al zenekiten elkartzea, elkartasuna, bategitea,... hain txarra zela? Beraiek ez al dira bada beti batera ibili guri erantzuterakoan? Ez al zioten, erantzun bateratua eman behar zitzaioala arazoari? Zergatik orain aldendu eta izu-ikararen bidea hartu besteri hainbeste aholku eman eta gero?

Ez egon horri begira. Filme hori ikusita daukagu. Gure sarrerak erosterakoan, inbertsio egokiagoa egingo dugu hasierako *batzuen* filmerako erosita. Ideia eta aire freskoagoa dario filme horri eta gainera, bertako aktoreekin, urrezko maskorra irabaziko du. A, hori bai, ahaztu gabe hartu sarrerak, baita goiak behea joko badu ere!

Iñaki Murua



Terrazak, leihoak eta balkoiak edertuz

zesitak edo hiedra dobleak.

Erdi itzaletarako: liliunak, kolore desberdinak jarri eta azpian alegria sinpleak edo etxeko alegriak. Belar usaintsuek ere merezi dute txoko bat zuen terrazatan taldeak egiteko.

Ontzi luzeetan, kopek, jarroi altuek, itxura ederragoa ematen dute. Itxura apalagoa nahi izanez gero jarri lorontzietan edo pertzatan. Izpiliku edo labanda, erromeroa, santolina, ezkaia eta erramua jartzeko egokiak dira.

Leihoetan eta balkoietan lorategi txikiak jartzeko beste aukera bat: oso politak geratzen dira, txintxilikatze saskiak. Bertan surfinak, lobeliak, tajetak eta abar jarritz.

Jardineretan lora nahastuak jar litezke, irudimen piska batekin, bakoitzak bere pertsonalitatea erakutsiz. Nire iritzirako, leihoak eta balkoiak berdinegiak egoten dira.

Peoniak terrazako txokoak edertzeko zoragarriak dira. Ontzi haundi batean jar litezke. Lur karetsua edota nahasia behar du, drenaje onarekin, ez du ur putzurik nahi.



Miren Etxezarreta
Muguet loradenda

Terrazak, leihoak edota balkoiak nola edertu aipatuko dugu, atseginagoak eta alaiagoak izan daitezzen. Aukera ederra daukagu: nobedade bezala arbustoak ditugu, loreekin edota lore gabe, 70 zentimetroko enborrarekin. Landare mota edo neurri handi honekin bere azpian, landare desberdinak jartzeko aukera ematen digu, honela, lorategi txiki eta bitxia egin liteke.

Eguzkitarako bi adibide jarriko ditugu. Gure inguru honetan ondo datoz fusiak edo erregin belarritakoak, 70 zentimetrokoak. Bere azpian jarriko ditugu, hiru bat berbena eta pare bat hederak. Txintxilikatu nahi izanez gero, geranioak eta zelosia ere jar daitezke.

Hibiscus Syriacus landarea ere jar liteke. Bere azpian, fran-

GOIKOM

GOIERRIKO KOMUNIKABIDEAK S.L.L.



Komunikazio aparatu, ekipo eta sareen mantenimendua, instalakuntza, konponketa eta hobekuntzak.

☎ 943 88 22 59 Faxes; 943 16 08 69

e-mail: goikom@teleline.es

Oriamendi, 11 behea - BEASAIN



Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 Senpere, 7 BEASAIN

Zer iritzi duzu GOIERRITARRA aldizkariare?

Goierritarrok GOIERRITARRA aldizkariaren inguruan duzuen iritzia jakiteko asmoz prestatu dugu inkesta hau. Bertan jasoko ditugun datuak oso garrantzitsuak dira GOIERRITARRA lan egiten dugunontzat, aldizkaria berritzeko asmoa daukagunez, denon gustoko aldizkaria egin nahi dugulako. Beraz, ahalik eta erantzunik gehien jaso nahi dugu. Erantzunak benetakoak izan daitezela eskatzen dugu, guztion onerako.

Inkestaren erantzunak ekainaren 23rako jaso nahiko genituzke, Ordiziako 124 posta-kutxan.

Erantzuten duzuenon artean **lau lagunentzako aforia** zozketatuko dugu.

Aldez aurretik, eskerrik asko.

ADINA ☐ 0-18 ☐ 19-25 ☐ 46-60 ☐ >60

SEXUA ☐ Emakumea ☐ Gizona

HERRIA:

JARDUERA ☐ Lanean ☐ Etxeko lanak ☐ Langabetua ☐ Ikaslea ☐ Jubilatua ☐ Besterik

NOIZTIK JASOTZEN DUZU GOIERRITARRA, gutxi gora-behera?.....

Euskara maila	Oso ongi	ongi	gutxi	batere ez
Hitzegin				
Irakurri				
Idatzi				

HOBETIKIEN MENPERATZEN DUZUN HIZKUNTZA

- ☐ Euskara
☐ Gaztelera
☐ Biak berdin

1.- Herriko edo eskualdeko aldizkaririk ezagutzen al duzu?

☐ Bai ☐ Ez Zeintzuk:.....

2.- Irakurtzen al duzu GOIERRITARRA aldizkaria?

☐ Bai ☐ Ez ☐ Gaietarik begiratzen dut

3.- Beste inork irakurtzen al du GOIERRITARRA aldizkaria etxean?

☐ Bai ☐ Ez ☐ Batzutan

4.- (Aurreko galdera baiezkoa bada) Adinaren eta sexuaren arabera nola sailkatzen dira irakurleak?

	Gizonezkoak	Emakumezkoak
0-12		
13-18		
19-30		
31-55		
>55		

5.- Zenbat denbora ematen duzu GOIERRITARRA irakurtzen?

☐ <15 min. ☐ 15-30 ☐ 30-40 ☐ >40 ☐ Ez dakit

6.- Egunkaririk irakurtzen duzu?

☐ Bai ☐ Ez

7.- Irakurritz gero, zein?

☐ Egunkaria ☐ Gara ☐ Deia ☐ El Diario Vasco ☐ El Mundo ☐ El Pais ☐ Besterik

8.- Kutsu ideologikorik aurkitzen al diozu GOIERRITARRA aldizkariari?

☐ Bai ☐ Ez

9.- Aldizkaria etxean jasotzeagatik ordainduko zenuke? ☐ Bai ☐ Ez

10.- Zein da aldizkariko atal bakoitzari buruz duzun iritzia?

Atalak	Oso ona	ona	erdipurdikoa	txarra	ez dut irakurtzen
Hamabostaldian nabarmen					
Bertsoa					
Eskutitzak					
Txandaka					
Inkesta					
Agenda					
Debaldeko iragarkiak					
Kolaborazioa					
Errezeta					
Aholkua					
Berriak labur					
Erreportaiak					
Elkarriketak					
Zure herriko kronika					
Gainerako kronikak					
Fotozaharra					

11.- Zer erantsiko zenioke aldizkariari? (Sail berriak, argazki gehiago, publizitate gehiago...)

12.- Zer kenduko zenioke aldizkariari?.....

13.- Baloratu aldizkariaren diseinua (zenbakia borobildu): 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

14.- Zenbateraino jasotzen du GOIERRITARRA eskualdeko informazioa?

☐ Ongi ☐ Gaizki ☐ Gutxi ☐ Oso gutxi

15.- GOIERRITARRA irakurri aurretik euskaraz irakurtzen zenuen?

☐ Bai ☐ Ez ☐ Noizbehinka

16.- Euskaraz irakurtzeko ohiturarik baduzu? ☐ Bai ☐ Ez ☐ Noizbehinka

17.- Aldizkariak duen erredakzio modua atsegina egiten al zaizu? ☐ Bai ☐ Ez

18.- Zailtasunak al dituzu euskararekin GOIERRITARRA aldizkaria irakurtzeko?

☐ Erraz ulertzen dut guztia ☐ Birritan irakurri behar izaten dut

☐ Ulerkaitza egiten zait ☐ Asko kostatzen zait

19.- GOIERRITARRAren publizitatea... ☐ Asko dago ☐ Gutxi dago ☐ Nahikoa

20.- Aldaketarik nabaritu al duzu lehenengo aletik hona?

☐ Bai, onerako ☐ Bai, txarrerako ☐ Ez

21.- GOIERRITARRA ☐ Astekaria izan behar luke ☐ Hilabetekaria ☐ Hamabostekaria

22.- GOIERRITARRAren orrialde kopurua

☐ Egokia da ☐ Gehiago izan beharko lituzke ☐ Gutxiago

23.- Aldizkaria puntual, ostiraletan, iristen al zaizu? ☐ Bai ☐ Ez

24.- Zerbait gehitu nahi baduzu:

Izen-abizenak:.....

Telefonoa:.....

Inkesta anonimoa izan daiteke, izen-abizenak saria zozketatzeko bakarrik hartuko dira kontuan.

GOIERRI

haize berriak

partaidetza oinarri

**Euskal HerriaK garai
itxaropentsuak bizi ditu,
E.H. bozkatzea, bake eta
askastasunean oinarritutako
geroaren alde bozkatzea da**



Ezkerretik eskubira:

Aitor Aldasoro (Ataun)
Joakin Zubeldia (Zaldibia)
Beñat Jauregi (Legorreta)
Joxe Mari Otegi (Itsasondo)
Tomas Aldasoro (Idiazabal)
Joxe Ramon Agirre (Zegama)

Axier Mujika (Olaberria)
Agustin Linazasoro (Ordizia)
Andoni Antxia (Beasain)
Irantzu Amundarain (Lazkao)
Oihana Oñatibia (Ormaiztegi)
Luli Telleria (Segura)

EH
Euskal Herritarrok

bozkatu



ZUREKIN BATEGINIK BEASAIN



Jon Jauregi Bereziartua. 34 urte.

gure

ALKATEA



Seguraren

geroa, zure esku

Zure Herria. Zure ilusioa.
Zure etorkizuna.

Zure Bo-
toa



eusko
alkartasuna

Zuk nahi duzunaren alde.




MAIATZAREN 21ean INAUGURATU ZUTEN AGINTARIEK OFIZIALKI Lizarrustiko parketxeak uztailaren 4an irekiko ditu ateak

Lizarrustiko parketxea maiatzaren 21ean inauguratu zuten Gipuzkoako Diputazioko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak. Luis Pedro Peña Santiago izena jarri diote parketxeari, mendizale gipuzkoarraren gogoan. 'Mendiak eta Harriak' enpresak, Felipe Uriarte eta Joxe Ramon Agirre 'Marron' mendizale ataundarrak, hartu dute parketxearen gestioaren ardura eta uztailaren 4an irekitzeko prestaketa lanetan ari dira buru belarri.

Aralarko Parke Naturalaren atea izango da Lizarrustiko parketxea. Inguruko naturaguneak eta Ataun eta Goierriko ondare kulturala eman nahi dira ezagutzera Lizarrustitik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak 50na miloi jarri dituzte parketxea eraberritzeko. Interpretazio zentrua eta aterpetxea izango da Luis Pedro Peña Santiago izenaz baitaiatu duten parketxean.

Parketxean Aralarko maketa handi bat dago. Sistema informatiko interaktibo bat ere bai, eta baita Aralarri buruzko bideo eta diaporama bana ere. "Parketxea



'Marron': Eskola, jendea hezitzeko, hurbiltzeko, sentsibilizatzeko lekua izan dadila"

abiapuntu izan eta jendea Aralarko txokoak ezagutzera gonbidatu nahi dira", adierazi digu Joxe Ramon 'Marron' ataundarrak. Aralarri buruzko liburua ere kaleratu berri dute Joxepa Madariaga lazkaotarrak eta Gema Arrugaeta argazkilari ordiziarrek.

Aterpetxearen funtzioa ere beteko du parketxeak. 38 literako logela bat, 2 logela partikular eta koadrilentzako 8 bat literako beste gela bat izango ditu. Gela bakoitzak bere dutxa eta komunak izango ditu.

Jantokia ere izango du. "Parketxea errepide bazterrean egonda, jatetxe zerbitzua ere eskainiko dugu. Era horretan, Ataungo eta Goierriko produktuen leiho izan nahi du. Kalitate apur bat eskaini dugu jatetxean", esan digu 'Marron'-ek.

Parke Naturalerako sarrera Lizarrustik izatearekin, Larraitzi eta Amezketari arintasuna eman nahi zaio. "Jendeak Aralarri buruz daukan irudia Txindokirena da, Larraiztik edo Ordizia eta Beasaindik ikusten dena. Baina apustu bat da jendeari leku eta espazio berriak eskaintzea. Baso baten barruan gaude eta beharbada hortik beste ibilbide ezberdin batzuk eskaintzen ditugu".

Sentsibilizazio gunea

Ikastaroak, ibilaldi gidatuak, bisita gidatuak... prestatzen ari dira. Udazken aldera, ikasturtea hastearekin batera, ikastetxeentzako programa bereziak ere martxan jartzeko asmoa daukate. Guztien helburua, ondare kulturala ezagutzuz, inguruneaz gozatzuz, inguruneaz sentsibilizatea: "natura

zaindu egin behar dela erakutsi behar zaio. Eskaintzen dugun hori ez dadila izan komertzial hutsa. Eskola, jendea hezitzeko, hurbiltzeko, sentsibilizatzeko lekua izan dadila".

Beti ere oreka mantentzen saiatuko dira turismoaren eta ingurunearen babesaren artean. "Turismoaren eraginaren beldurra badaukagu, zenbateraino den ona den kaltegarria ingururako. Balantze hori beti erabili behar dugula badakigu. Zenbait turismo mota oso erasogarriak dira, baina planteatzen dugun moduan, hemengo eszenatokia jendeari ezagutzera eman nahi diogu, modu arrazional batean, beti oreka hori mantenduz. Askotan zaila da oreka horren muga non dagoen jakitea. Dugun ondare hau zerbaitegatik da, bertakoek edo ingurukoek zaindu dutelako, bertatik bizi direlako, eta hori mantendu nahi dugu eta hori arriskuan ikusiko bagenu, aldatu egin beharko genuke planteamentua".

Uztailaren 4an festa

Uztailaren 4a irekiko dute parketxea jendearentzat. Erromerria eta festatxo batekin eman nahi diote ongi-etorria jendeari. Goierri, Euskal Herrira eta mundura zabaldu nahi dute Lizarrustiko parketxearen izena.



XENKEGI
ETXE-AROZKINTZA
Diseinuak neurritan

Erakusketako Tel-faxa: 943 889113

Tel mugik.: 619 487056

Senpere Merkatalgunea, 25

Sukaldeak
Ateak
Zorruak
Armairuak

BEASAIN



Etxegarate mendatea bikoizteko lanak hasi dira

Maiatzaren 25ean jarri zen Etxegarateko mendatearen bikoizketako lehenengo harria. Egun berean, Etxegarateren bikoizketako bigarren faseko lanak inauguratu ziren. Roman Sudupe Diputatu Nagusia eta Antton Jaime Garraio eta Errepide diputatuak izan ziren, Idiazabalgo agintarien alboan. Goierriko hainbat alkate ere izan zen bertan. Idiazabalgo kronikan duzue informazio gehiago.

Etxegarateko maketa Beasainen

Beasaingo udaletxe azpiko geletan dago Etxegarateko mendatearen bikoizketako proiektuaren maketa.



PSE-EEren hautagaien aurkezpena

Lazkaon aurkeztu zuten maiatzaren 27an Batzar Nagusietako hauteskundeetarako Goierri eta Oria eskualdeetako zerrenda. 3 goierritarrek hauek dira: Fernando Boada, Jose Antonio Dopazo eta Aitor Perlones.



Zumalakarregi museoa eraberritua

Maiatzaren 26an inauguratu zen Zumalakarregi museoaren bigarren solairua. Koruko Aizarna, Kultur diputatua izan zen inaugurazio ekitaldian. Dokumentu orijinal gehiago jarri dituzte ikusgai museoan, bai grabatuak eta bai dokumentuak. Euskarazko dokumentu gehiago ere bai. 'Gerra eta bakea' izeneko ibilbidea ere prestatu dute, gerraren ankerkeriaz jabetzeko.



Ruben Zabaleta eta Jon Urteaga txapelak

Maiatzaren 22an Lezon jokatu ziren Gipuzkoako infantil-alebin txirrindulari txapelketan, Ruben Zabaleta zegamarra eta Jon Urteaga idiazabalدارra izan ziren txapelak.

Greba orokorra

Sindikatuak maiatzaren 21erako deitutako greba orokorrak erantzun zabala izan zuen Goierri. Enpresen arloan enpresa gehienek lanuztea egin zuten. Besteak beste, Bilore, CAF, Estanda, Orkli, Irizar, Idiazabalgo Jaso... Ikastetxe gehienek ere greba egin zuten; baita denda eta tabernetak ere. Beasainen, herriko festak izaki, tabernetak gaueko 9etan ireki zituzten. Dendak lehenengo orduan ireki bazituzten ere, gerora itxi egin zituzten.

Irizar: 'Urrezko Q'

Eusko Jaurlaritzak 'Urrezko Q' saria eman zion maiatzaren 19an Ormaiztegi Irizar enpresari. Enpresaren kalitatea goraipatu nahi du Jaurlaritzak sari honekin. Juan Jose Ibarretxe Lehendakaria, Josu Jon Imaz Industria sailburua eta Roman Sudupe Gipuzkoako ahaldu nagusia izan ziren sari emate ekitaldian.

Auto istripua

Beasaingo 36 urteko Nekane Guerra eta Eloi eta Maria Isabel Revilla seme-alabak, 8 eta 2 urtekoak, maiatzaren 23an hil ziren Burgosen izandako auto istripuan.

Ingelesa ikasteko egonaldiak Seguran

Abuztuaren 1etik 15era Segurako aterpetxean ingelesa ikasteko egonaldia antolatu

da, 18-19 urte bitarteko gazteentzat. Ekainaren 25era bitartean dago izena emateko epea. Ordiziako gazte bulegoan, 943 805634 telefonon, egin behar da.

AEK-ko Txiste idatzien lehiaketa

Goierriko AEK-ko euskaltegiek antolatutako txiste idatzien lehiaketako irabazleak hauek dira: Jose Luis Bakero, Eusebio Ramirez eta Gabriel Sanchez. Castillon, Arrieta jatetxean eta Legorretako Aulia sagardotegian bi lagunentzako aforia izango dute sarritzat.

Jose Ramon Soroiz

Samuel, ETB-1eko 'Ertzainak' telesail poliziakoko ertzain protagonista da Jose Ramon Soroiz legorretarra. Ane Aseginolaza idiazabalدارrak, tabernariaren papera egiten du.

Izaro Iraeta

Zaldibiako kazetaria 'Goenkale, esker 1.000' saioko aurkezlea da, Xabier Euzkitzerekin batera.

Euskadiko Bola Txapelketa

Ekainaren 12an, Segurako Txoritegi bolatokian jokatu da Euskadiko Bola txapelketa. 46 bolarik parte hartuko dute Informazio gehiago Segurako kronikan.



Ortoprotesi tresnak bildu nahi ditu Beasaingo anbulatorioak

Etxean soberan ditugun ortoprotesi tresnak bildu nahi ditu Beasaingo anbulatorioak, beharra duenari behar duenean uzteko. Ortoprotesi tresnak gurgildun aulkiak, muletak, ohe artikulatuak, taka-takak... dira. Beasaingo anbulatorioko gizarte laguntzaileak, Olalla Garaioak argitu digunez, "jendeak tresna hauek behar ez dituenengan barerara eramaten dituzte eta erdoildu egiten dira eta behar dutenean ez du balio izaten. Beraz, behar ez duenak anbulatoriaz ekar ditzala, behar duenari zerbitzua eskaintzeko".

Ortoprotesi tresnak luzerako behar izanez gero, onena berria erostea da Garaioaren esanetan. Horretarako Osakidetza diru-laguntzak ematen ditu, nahiz eta bide honek luze jo. "Baina denbora luzerako behar ez baldin bada, anbulatorioan etxeetan erabiltzen ez diren tresnak biltzen ditugunez, behar duena uzten diogu. Maileru zerbitzua daukagu antolatuta, behar ez duenean berriez ere itzultzeko konprometuzarekin. Dohanekoa da zerbitzua, eskari orria bete behar da bakarrik".

Ohe artikulatuak kasu jarri digu adibidetzat Garaio-

ak: "gaixoak gero eta gutxiago egoten dira ospitaleetan eta kasu askotan oso egokiak dira etxera ohe artikulatuak eramatea. Anbulatorioan egin behar du eskaera eta garraio gastuak bakarrik ordaindu beharko ditu".

Gizarte laguntzaileak jakitera eman digunez, "diru publikoarekin subentzionatzen dira tresna hauek eta maileru zerbitzu hau diru aurreratzeko sistema bat da. Legez gainera, diru-laguntza bidez erosten diren tresnak itzultzea behartuta daude, berreskuragarriak izan daitezkeenak behintzat. Jende askok ez daki horren berri. Lepoko koilare bat adibidez ez da berreskuragarria".

Gizarte laguntzailea

Gizarte laguntzailea da Olalla Garaioa. Anbulatorioan gizarte laguntzaile baten lana zein den galdetu diogu: "osasuna galtzerakoan, askotan, autonomia falta sortzen da eta horrek ondoez siko-sozialera zaramatza. Arazo horiek ez dute batere sendatzen laguntzen. Orduan gizarte laguntzaileok arduratzen gara arazo sozial horiek konpontzen laguntzen. Osasuna berreskuratzeko beharrezkoa da arazo sozialak konpontzea".

'Kablea Ataunen'

'Kablea Ataunen' lana kaleratu du Ataungo Udalak. II. Ataun Aztergai Beka jaso zuen Lourdes Altuna ataurdarren lana da. Garai batean eta oraindik erabiltzen den teknika baten testiguntza bildu eta azaldu nahi du liburuak.

Herriak duen orografi menditsuaren ondorioz baserrira belarra ekartzeko garatutako teknika bat izan da kablea. Baserritik askotan edota gehienetan mendiko soroetatik baserrira belarra, garoa eta egurra ekartzeko garraio oso garrantzitsua bihurtu zen. Garai hartarako, aurrerakoia eta zailtasun ugari gauditzeko modu bitxia.

Denera 197 kable inbentariatu dira Ataunen. Egun erabiltzen direnak 17 besterik ez dira eta beste 15 nahiz eta ez erabili, oraindik kentzeko daude.

Lan honetan, kablearen historia, motak, elementuak, egungo egoera eta bere inguruko gai ugari jorratu dira. Izandako eta dagoen kable guztien inbentario bat egin da. Noiz jarriak izan diren, luzerak, nondik norakoa, berezitasunak, erabiltzen den hizkera edo terminologia, planoak, argazkiak, materialak, elkarrizketa egileekin...

Liburua eskuratu nahi duenak, Ataungo udaletxera jo dezake. Telefonoa: 943 180011.



Sasieta sariak

Sasieta Mankomunitateak eskualdeko ikastetxei zuzendutako lehiaketako sari-banaketa egin zen Beasainen, maiatzaren 20an. Aurten izan da berrikuntzarik: hainbat herrietako eskolek Bigarren Hezkuntzarik ez dutenez, Lehen Hezkuntzako azkeneko urteetakoei zuzendutako kartel lehiaketa izan da aurten. Beasaingo Ikastola-Andramendi Kooperatibako Haizea Zurutuza, Leire Mujika eta Itsaso Paredesek irabazi dute. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako artean, kartel lehiaketa, Urretxu-Zumarragako ikastolak irabazi du. Jostailu lehiaketa, azkenik, Zumarragako La Salle-Legazpi ikastetxeak irabazi du.

Sasieta, Beasaingo Ikastolaren eta Urretxu-Zumarragako Ikastolaren lana goraiatu zuten sari-banaketa ekitaldian, urtero parte hartzeaz gain, maila ona erakusten dutelako.

Oroigarritzko plakak jasotzearekin batera, Donibane Garaizira egin zuten bidaia, Bidarra errekan ere rafting eginez.

XX. mendeko azkeneko alkateak hautagai

Ekainaren 13an, Udala berriak aukeratzeko hauteskondeekin batera, Batzar Nagusietako eta Europako hauteskundeak ere baditugu. Gaintzan, egun horretan dena den, ez dute udal berriak aukeratzeko, kandidaturak aurkeztu ez denez, 6 hilabetera egin beharko baitituzte. Beste hainbat herritan, dagoeneko jakina da nor izango den alkate, kandidatura bakarra aurkeztuko baita. Gehienetan, ordea, lehia gogorra izango dute hautagaiek. Udal hauteskundeak heldu diegu guk orri hauetan. 139 zinegotzi aukera beharko dira; horietatik 18 alkateak.

Aurtengo udal hauteskundeak bereziak dira. Mendeko azkenekoak izateaz gain, kandidaturen artean bada berrikuntzarik, Euskal Herrian bizi dugun egoera berria dela-eta.

Euzko Alderdi Jeltzaleak (EAJ) eta Eusko Alkartasunak (EA), Goierriko 6 herritan bat egin eta bi alderdien arteko koalizioak aurkeztu dituzte. Idiazabalen eta Seguran, alderdi bakoitzak bere aldetik joatea erabaki du.

Alderdi Popularrak (PP) sekula ez bezala, hamaika



Gaintzan hauteskundeak 6 hilabete beranduago

Gaintzan ez da udal hauteskunderik izango ekainaren 13an, ez baita kandidaturarik aurkeztu. Kasu honetan legeak dioenez, 6 hilabetera egin beharko dira hauteskundeak, kandidaturaren bat aurkeztu bada behintzat. Epe horretan berriz ere kandidaturak aurkeztuko ez balitz, Gipuzkoako Foru Aldundiak izendatuko luke batzorde gestore bat. Bitartean, orain arteko udal ordezkariak jarraituko dute agintean.

1991. urtean ere gauza bera gertatu zen Gaintzan, hauteskundeak ohi baino beranduago egin behar izan zituzten, arrazoi ber-beragatik. Kasu hartan, 6 hilabetera, 2 kandidatura aurkeztu ziren.

Gipuzkoan, Gaintzaren egoera berdinean, beste herri bat ere bada: Albiztur.

herritan osatu ditu kandidaturak, nahiz eta zerrendagai gehienak Goierriko kanpokoak izan.

Euskal Herritarrok (EH) taldeak, lehen HB, aurkeztu ditu zerrenda gehien Goierriko. Olaberriaren kasuan lehenengo aldia da EH udal hauteskundeetara aurkeztu dela.

PSE-EE eta IU-EB alderdien kasuan, aurreko urtee-

tako herrietan aurkeztu dituzte zerrendak.

Herri txiki gehienetan independenteen kandidatura bakarrik izaten da aukeran. Ataunen, aurtan, Herrigintza taldearekin EAJk eta EAK bat egin dute. Zaldibian ZUTEk ez aurkeztea erabaki du. Gabirian independente bezala aurkeztuko da talde bakarra. Gainerakoan, Altzagan, Araman,

Zinegotzi kopuruak

Altzaga: 1.
Arama: 4.
Ataun: 9.
Beasain: 17.
Ezkio-Itsaso: 7.
Gabiria: 7.
Idiazabal: 11.
Itsasondo: 7.
Lazkao: 11.
Legorreta: 9.
Mutiloa: 4.
Olaberria: 7.
Ordizia: 13.
Ormaiztegi: 9.
Zaldibia: 9.
Zegama: 9.
Zerain: 5.

Ezkio-Itsason, Mutiloan, Olaberrian eta Zerainen, independenteen kasuan ez da aldaketarik.

Emakumezko zerrendaburuak

51 kandidaturatik 9 zerrendaburu dira emakumezkoak. Araman: Maria Jose Olazabal (Aramako Herri Batzarra). Itsasondon: Maria Luisa De Azpiroz (PP). Lazkaon: Irantzu Amundarain (EH). Legorretan: Lucia Querido (PSE-EE). Mutiloan: M. Angeles Telleria (Mutiloako Herri Kandidatura). Ordizian: Alejandra Iturrioz (EAJ-PNV/EA); Maria Pilar Maso (PP). Ormaiztegin: Oihana Oñatibia (EH). Seguran: Karmenxutx Etxeberria (EA).

ARRIZAR BODEGOIA

Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 943 88 98 44 BEASAIN

GESTORIA BIOK

Errenta aitorpenak egiten dira

Goierri, 12 behea

ORDIZIA

☎ 88 44 00
88 12 58

18 alkate, 51 hautagai

Ekainaren 13ko hauteskuntzetan Goierriko 18 udaltarako aurkeztuko diren zerrendaburuak dira ondorengo zerrendakoak. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialetik ateratakoak dira. Zerrenda osoak ateratzea oso luzea litzatekeenez, zerrendaburuak bakarrik jarri ditugu.

Goierri EHk aurkeztuko du kandidaturarik gehien; 13 guztira. PP alderdia 11 herritan aurkeztuko da; independenteak 8 herritan; EAJ-EA / EA-EAJ, 6 herritan; PSE-EE 6 herritan; IU-EB 3 herritan; EAJ eta EA bina herritan.

Altzaga:

Altzagako Artea Taldea: Imanol Mujika.

Arama:

Aramako Herri Batzarra: Maria Jose Olazabal.

Araun:

EH: Aitor Aldasoro.
Herrigintza: Aitor Auzmendi.

Beasain:

EH: Andoni Antxia.
EAJ-EA: Jon Jauregi.
IU-EB: Eduardo Fernandez.

PP: Julio Herreros.

PSE-EE: Jose Luis Elorza.

Ezkio-Itsaso:

EH: Iñaki Idiakez.

E-Iko Herrikideak: Jose Ignazio Etxezarreta.

Gabiria:

**'Gabiria' Hautagai Elkar-
tea:** Xabier Aitor Murua.

Idiazabal:

EH: Tomas Aldasoro.

EA: Antton Irizar.

EAJ: Asier Oiarbide.

PP: Lorenzo Luis Soriano.

Itsasondo:

EH: Jose Mari Otaegi.

PP: M. Luisa De Azpiroz.

Lazkao:

EH: Irantzu Amundarain.

IU-EB: Jesus Maria Saldaña.

PP: Jose Luis Otamendi.

PSE-EE: Jose Antonio Dopazo.

EAJ-EA: Felix Urkola.

Legorreta:

EH: Beñat Jauregi.

PP: Pedro Vazquez.

PSE-EE: Lucia Querido.

EAJ-EA: Xabier Iraola.



Mutiloa:

Mutiloako Herri Kandidatura: M. Angeles Telleria.

Olaberria:

PP: Jose Miragaya.

**Olaberriko Herri Elkar-
tea:** Txomin Mendoza.

EH: Asier Mujika.

PSE-EE: Fernando Boada.

Ordizia:

EH: Agustin Linazasoro.

EAJ-EA: Alejandra Iturriz.

IU-EB: Pedro Lozano.

PP: Maria Pilar Maso.

PSE-EE: Iñaki Dubreuil.

Ormaiztegi:

EH: Oihana Oñatibia.

PP: Juan Jose Tirado.

EAJ-EA: Iñaki Maiora.

Segura:

EH: Luis Maria Telleria.

EAJ: Pello Agirrezabal.

PP: Ignacio Jesus Malonda.

EA: Karmentxu Etxeberria.

Zaldibia:

EH: Joakin Zubeldia.

PP: Guillermo Mazorra.

PSE-EE: Roman Rico.

Zegama:

EH: Jose Ramon Agirre.

EA-EAJ: Juan Ignazio Galdos.

PP: Nikolas Ivan Sanchez.

Zerain:

Zeraingo Herri Kandidatura: Andoni Alustiza.

DIETETIKA ETA ELIKADURA

- ✓ Kolesterolia, diabetes eta abar zaintzeko
- ✓ Pisua kontrolatzeko eta soberan dauzkagun kilo horiek galtzeko, inongo pastilarik edo botikarik gabe. Dietista batek egindako dieta osasuntsu eta orekatu baten bidez

ESKATU ORDUA

GORAIT - Andra Mari, 5 (Udaletxe parean)
☎ 943 88 87 62 BEASAIN



● Pintxo hotz eta beroak

● Ogirtartekoak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA

Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 943 88 02 43

943 88 01 33

BEASAIN

LAZKAO

Lazkaotarren %61,5ek badaki euskaraz

EAEko II. Soziolin-
guistikazko
Mapa aur-
keztu zuten
joan den
maiatzaren
10an. Eusko
Jaurilaritzako

	Kop.	%
Euskaldun zaharrak	2066	% 44,4
Jatorrizko elebidunak	203	% 4,4
Euskaldun berriak	593	% 12,7
Partzialki euskaldun berriak	360	% 7,7
Partzialki erdaldunduak	35	% 0,8
Gutiz erdaldunduak	9	% 0,2
Erdaldun zaharrak	1391	% 29,9
Biztanleria	4657	

Hizkuntza Politikarako Sai-
lordetak eta EUSTATEk lan-
dutako mapa honetan, EAE-
ko ikuspegi orokor bat era-
kusten zen, herri herriko da-
tuez baliatuz.

Lazkaoko datuen kasuan,
lazkaotarren %61,5ek euska-
raz badaki. Multzo honetan
sartzen ditugu euskaldun za-
harrak, jatorrizko elebidunak
eta euskaldun berriak. Laz-
kaotarren %30a, berriz, era-
bat erdalduna da, hauen arte-
an, sar ditzakegu, erdaldun
zaharrak eta gutiz erdaldun-
du diren garai bateko euskal-
dunak. Beste maila batean
koka ditzakegu, euskararen
ezagutzaren bat gutxienik
badutenak, hauen artean,
partzialki euskaldun berriak
direnak eta partzialki erdal-
dun direnak aurki daitezke;
hauen kopurua %8,5ekoa da.

Datu hauek, 5 urtetik go-

rako lazkaotarren artean egi-
niko kontaketa baten ondo-
ria dira.

Udal hauteskundeak

Datozen udal hauteskunde-
tan erabakiko dira, besteak
beste, Udaletxean lan egin
beharko duten 11 zinego-
tziak. Hemen duzue hautes-
kunde hauetara aurkeztu di-
renen zerrendetako 5 lehe-
nengoak.

Ezker Batua: Jesus Maria
Saldaña, Marco Antonio
Muñoz, Mari Carmen Her-
nandez, Maximo Pajares,
Maria Dolores Imaz.

Euskal Herritarrok: Iran-
tzu Amundarain, Julio Iba-
ñez, Jon Agirre, Urko Iras-
tortza, Joseba Hernandez.

E.A.J.-E.A.: Felix Urkola,
Igor Sarriegi, Inazio Esten-
soro, Gorka Lamy, Arantxa,
Zumelaga.

P.S.E.-E.E.: Jose Antonio



Ardo dastaketa Ikastaroa

Arabako Errioxako Sustapenerako Elkarteko (APRA) kidea
den Mikel Garaizabalek eskainitako ikastaroa benetan arra-
kastatsua suertatu zen. Hamabost laguneko talde bat osatu zu-
ten eta bertan ikasi ahal izan zituzten ardoari buruzko hainbat
zehetasun.

Dopazo, Juan Manuel Serna,
Alejandro Crespo, Alfredo
Goñi, Florencia Perez.

Partidu Popularra: Jose
Luis Otamendi, Alberto Gar-
cia, Jose Luis Urquijo, Juan
Manuel Imbernon, Leonardo
Segarra.

Islandia Oinez

'Islandia Oinez' izeneko iku-
sentsuneko eskainitako du
Angel Cuerdo Galaragak,
ekainaren 9an, asteazkena,
Maizpide Euskaltegiko zine
aretoan.

Liburutegia lekuz aldatuta

Udaletxeari erantsita dagoen
eraikuntza berrira pasa dute
Udal Liburutegia. Leku eta
baliabide gehiago edukiko
ditu aurrerantzean bertara
hurbiltzen den orok. Liburu-
tegia eraikuntza berriko lehe-
nengo solairuan aurkitzen da
eta lehengo ordutegi berbera-
rekin egongo da irekita, hau
da, arratsaldetan 4,30etatik
8etara eta larunbatetan goi-
zeko 10etatik 12,30etara.

Urko Irastorza

EZKIO-ITSASO

Mendeetan zehar bakoitzak
bere histori propioa izan on-
doren, Ezkio eta Itsaso 1965.
urteko martxoan elkartu zi-
ren. Momentu horretatik
Udalerria sei auzok osatzen
dute: Ezkio, Itsaso, Santa
Lutzi, Alegi, Matximenta eta
Mandubi. Matximenta auzo-
ari buruz, hiru Udalerrietan
banaturik dagoela esan be-
har: Azpeiti, Beasain eta Ez-
kio-Itsaso.

Matximenta eta Ezkioko
jaiak igaro ondoren oraingo-
an Santa Lutzi iritsi zaio
txanda. Urtero bezala, festa
elkartek lanean jardun du
denen gustoko San Pedro
jaiak antolatze asmoz eta
jadanik prest dituzte ekaina-
ren 28 eta 29an izango diren
ekintzak. Ondoren doakizue
festen egitaraua eta lerro
hauen bidez guztiok gonbi-
datu nahi zaituztegu jai
hauek gurekin dastatzera.

Santa Lutzi auzoa jaietan

Ekainak 28, astelehena:

20:00etan: Txupinazoa
Santa Lutzi auzoan.

21:00etan: Herri afaria
trikitilari taldeak alaiturik.

Ekainak 29, asteartea:

10:00etan: Txistularien
kalejira auzoan zehar.

11:00etan: Meza Santua.
Ondoren hamaiketako izan-
go da herritar guztientzat
Anduaga Elkartean.

16:30etan: Haur jolasak

auzoko plazan eta ondoren
txokolatada guztientzat.

19:00etan: San Pedro to-
ka txapelketa.

19:30ean: Futbol parti-
dua: ezkonduak ezkongabe-
en kontra.

22:30ean: Erromeria Kol-
do Iparragirre eta bere talde-
arekin.

Joseba Etxezarreta

IDIAZABAL

Bariantea bukatuta, Etxegarateren txanda

Etxegarateren bikoizketari dagokion bigarren faseko lanak, Idiazabalgo bariantea, maitzaren 25ean inauguratu zituzten. Egun berean Etxegaraterko azken zatiko lanen lehenengo harria jarri zuten. Roman Sudupe Diputatu nagusia eta Antton Jaime Garraio eta Errepide diputatua izan ziren inagurazio ekitaldian. Horiekin batera Antton Irizar Idiazabalgo alkatea eta Tolosa eta Idiazabal bitarteko udalerrietako ordezkariak ere bildu ziren.

Maiatzaren 25ean inauguratutako lana 1.350 milioi pezeta kostatu da, hasieran aurreikusitakoa baino 200 milioi pezeta gehiago. Burututako lanei esker Iñautsi eta Benta Txiki bitarteko errepide zatian lau karril egongo dira aurrerantzean. Era berean Benta Txikin N-1 errepiderako irteera-sarrea berriak egokitu dira.

Etxegarateren bigarren faseko lanak inauguratu ondoren, hirugarren fasea egiteko lehen urratsa ere eman zen. Etxegarateren bikoizketa ekarriko duten lanen lehenengo harria jarri baitzuten Diputazioko ordezkariak. Orain 26 hilabeteko epea eta



du Jauregik eskultura berria. Lasturko kare-harriz egindako zaldun baten irudia da, eskuz landutakoa eta lau metroko luzera du. Egilearen esanetan *"Kokagune honek horrelako zerbait eskatzen zuen (...) orain dela gutxi arte bide hau zaldiz edo gurdiz egiten zen"*.

7.500 milioi pezetako aurrekontua dute lanak egiteko. Gauzak ondo 2001. urteko udan amaituko dituzte lanak. Ordurako Nafarroako zatia ere bikoiztutea espero da.

Futbol txapelketa

Uztailean inauguratuko da Futbol Zelai berria eta zelai berriari ahalik eta etekin gehien ateratzeko asmoa du Idiazabal Kirol Elkartek. Zelai berria bukatzerako, Futbol 7 erako txapelketa antolatu nahi du Kirol Elkartek.

Zalduna

Izen hori jarri dio Koldobika Jauregi eskultoreak Idiazabalen jarri berri duen lanari. Bariantearen bikoizketa eginda, Benta Txiki ondoan egokitu diren sarrera-irteera errepideen ondoan kokatu

ak, Marca kirol egunkariarekin eta Gure Sport taldearekin batera.

Donostian eta Bizkaia aldean martxan dagoen txapelketa herrira ekarri nahi dute. 16 taldek osatutako multzoa eratu nahi da Idiazabalen, eta horien bila ari da orain Kirol Elkartea. 18 urtez gorako 18 lagunek, gehienez, osatutako taldeak behar dituzte. Irailean hasita maiatza bitartean asteburuetan jokatu dira partiduak eta Marca egunkarian agertuko dira

emaitzak eta sailkapenak.

Txapelketan nahi duen guztiak hartu dezake parte. Izena emateko edota informazio gehiago jasotzeko 943316758 telefonora deitu (Gure Sport) edota Idiazabal K.E.ko Jesus Serranorengana jo dezakezue.

Idiazabal Gorrotxategi

Idiazabal Gorrotxategi futbol taldea lehenengo mailara igo da, bere taldeko lehen postua lortu ondoren. Izalдарrek aurreko larunbatean jokatu zuten ligako azkeneko partidua Zelaako kiroldegian Plaza Berri Sport taldearen aurka eta 8 eta 2 irabazi zuten.

Igerilekua

Ekainaren 12an irekiko dute Igarondo igerilekua. Irailaren erdialdera bitartean egunero egongo da zabalik goizeko 11etatik iluntzeko 8ak arte. Udalak jakinarazi du igerilekua zabalik dagoen bitartean ur eskasiaren bat sortuz gero igerilekua itxi egingo dela, eta abonodunek ez dutela ordaindutakoa jasotzeko eskubiderik izango. Arduradun lanetan iazko talde bera arituko da.

Xabier Urteaga



LAZKAO GARAJEA

Senpere Industrialdea
 ☎ 943 882442 - 943 888901
 Faxa: 943 888901
LAZKAO

RENAULT AGENTZIA



F.M. 89.2

EGUNEKO 24 ORDUAK ZUREKIN



GENERALI Aseguroak



SAN BENITO IKASTOLA

Euskadi enparantza z/g
 Tel.: 943 88 08 00 Faxa: 943 88 18 16
 Email: lazkao@ikastola.net
LAZKAO

BATXILERGOAK:

- 1.- Natur eta osasun Zientzien batxilergoa
- 2.- Giza eta Gizarte Zientzien batxilergoa

INAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
 ☎ 943 88 87 02
BEASAIN

ORDIZIA

Udal ordezkariak aukeratzeko garaia

Ekainaren 13a heltzear dago. Badakizue egun horretan hauteskundeak izango ditugula, Europarako, Batzar Nagusietarako eta baita udal ordezkariak aukeratzeko hauteskundeak ere. Denak egun berean. Udaletxean izango ditugun ordezkariak buruz esan 12 zinegotzi eta alkatea hautatu beharko ditugula.

EAJ/EA alderdiak Alejan-dra Iturrioz aurkeztu du zere-ndaburu, EHk Agustin Linazasoro, EBk Pedro Lozano, PSE/EEK Iñaki Dubreuil eta PPK María Pilar Maso. Gogoratu orain lau urte egin-dako hauteskundeetan EAJk 4 zinegotzi lortu zituela, HBk 3, EAK 3, PSE/EEK 1, EBk 1 eta PPK beste 1.

Dantzari txiki eguna

Jakintza Dantza Taldeak antolatuta dantzari txiki eguna ospatuko da igandean, hilak 6, herriko kale eta auzoetan zehar. Aurtzaka, Ostadar, Ereintza Iratzarri, Jakintza, Erketz, Lurra, Trebeska, Oin Arin eta Iztueta taldeak izango dira parte hartuko dutenak eta eguna Txakurtxulon hasiko dute, goizeko 10:30etan denak elkartuaz eta hamaiketako eginaz. Ondoren herri-tik zehar desfilea egin eta talde bakoitza auzo desberdinetara joango da herritarrei euren dantzak eskaintzeko. Talde guztiak berriro J.M. Barandiaran Plazan elkartuko dira eta bertan agurra, San Juan dantza, Makil Txiki dantza, Fandango eta Arin-arina eskainiko dituzte



Urpeko igerilariak Gasteiza

OKE urpekoak taldekoek antolatuta Espainiako Aleta Igeriketa Txapelketa jokatu da ekainaren 5ean. Aipatu larunbatekoa federazioka antolatutako lehiaketa izango dela eta berau Gasteizko Ulibarri Ganboa pantanoan jokatu dela. 5 federazio-tako igerilarik hartuko dute parte, Euskadi, Nafarroa, Aragoi, Galizia eta Gaztela-Mantxakoak hain zuzen.

Bi lasterketa izango dira, gizonezkoena bata eta emakumezkoena bestea. Gizonezkoek 7.500 metroko ibilbidea burutu beharko dute eta esan 89an Elchen egin zen azkeneko txapelketan irabazlea izan zen Jon Iturrioz ordiziarra bertan izango dela. Aterioak ez dira nolanahikoak izango, hor izango baitira Gaztela-Manchako Francisco Martinez (egun 1.500 eta 800 metrotan errekorra duena) eta baita Galiziako Ivan Alonso ere. Hauek arratsaldeko 6etan izango dute irteera.

Emakumeak, berriro, arratsaldeko 4,30etan irtengo dira eta 5.000 metro egin beharko dituzte. Hemen faborito izango dira Igarondo taldeko Susana Lopez de Murillas eta Ordizia taldeko Ane Lopez de Bergara.



Jaialdi berezia

Maiatzaren 29an Jakintza dantza taldeak saio berezia egin zuen: musika berriarekin (zeltak batez ere), betiko dantzak eskaini zituzten.

eguerdiko ordubatean. hau egin eta gero dantzari guz-tiak bazkaltzera joango dira eta egunari amaiera emateko arratsaldeko 5etan berbena izango da Enparantza Nagu-sian Ataungo Agautz trikiti taldearen eskutik.

Bigarren fasea jokoan

Otsailean eman zitzaion hasiera XX. Lagunarteko Futbol Txapelketari eta dagoe-neko lehen fasea amaitu da. 18 taldek eman zioten hasera txapelketari eta hemendik aurrera 8 bakarrik arituko dira, hurrengo fasera pasa direnak hain zuzen. Antolatzaile-ek orain bi multzotan banatu dituzte taldeok lehen faseko sailkapena kontutan hartuta. Ligaxka moduan jokatu da hemendik aurrera ere. "A" multzoa E.R.Matxain Ilea-paindegia, Morapios, Bus-tunmira eta Badagok osatuko dute eta "B" multzoa, berriro, Tximista Sagardotegia, Urbi-tarte Sagardotegia, Loretos eta Sylum-ek. Multzo bakoit-zeko bi lehenak finalerdietara pasako dira.

Jaiak gertu

Santanak iristeko geroz eta denbora gutxiago falta dela eta herriko elkarte eta koa-drilek egin zuten festak anto-latzeke lehen bilera bat. Maiatzaren 24ean egin zen berau eta bertan festa batzor-dea osatzeko gonbitea luzatu zuten iazko antolatzaileek. Aurrerantzean ere izango di-ra bilera gehiago.

Aitor Calvillo

EROSKI

KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 943 88 27 93

ORDIZIA

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza

Edergintza eta ileapaindegia
tratamendu guztiak

Iturtxo, 5 ☎ 943 16 22 56 ORDIZIA

X A X O

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

San Inazio, 5 ☎ 943 88 35 81
BEASAIN

ZALDIBIA

Lardizabal Herri Eskolako haurrek eginiko margolanen erakusketa dago Kultur Etxean ikusgai herenegun hasi eta ekainaren 12ra arte. Kandinsky, Klee, Matisse, Picaso, Ugarte eta Van Gogh pintore ospetsuen artelanean bertioak dira erakusgai daudenak. Erakusketa egunero egongo da zabalik: aste egunetan arratsaldeko 6etatik 8etara eta asteburuan eguerdiko 12etatik 2etara.

Halaber, gaur, ekainak 4 ostirala, arratsaldeko hiruak aldera solasaldia izango da artearen inguruan, ikasleen eta Ugarte margolariaren artean, Kultur Etxean.

Hauteskundeetarako zerrendak

Ekainaren 13ko udal hauteskundeetarako hiru zerrenda aurkeztu dira Zaldibian. Hauetariko bat herritarrez osatua dago eta beste biak kanpotarrez.

Euskal herritarrok (EH):

Joxe Joakin Zubeldia "Zarra", Oroitz Etxabe, Aitzol Jauregi, Iñaki Gurrutxaga, Maddalen Hernandez, Agustin Mujika "Takolo", Ramon Sukia, Joseba Murua "Gorriñe", Ustaritz Ormaetxea.

Partido Popular (PP):

Guillermo Mazorra, Almudena Pozos, Consuelo Escrich, Jose Villalba, Abel de Miguel, Teresa Perez, Jon Jose Martinez, Eugenio Gomez, Maria Enma Rosa Garcia.



Futbola

Iragan asteburuan Zaldibiako futbol taldeek jokatuak partidetan ez zuten batere zorte onik izan gure herriko mutilek. Kadete mailan, Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketaren barnean Agirrek entrenaturiko mutilek 4-3 galdu zuten finalean Tolosako Eskolapioen aurka. Partidu orekatua izan zen eta azken momenturarte emozioa nagusitu zen. Polemika sortu zuten azken orduko erabaki batzu medio, azkenean, herriko gazteak bigarren postuarekin konformatu behar izan ziren.

Bestalde, eta Federatuen bigarren mailari dagokionean, Zaldibiko taldeak penaltietan galdu zuen Andoaingo Iberico Justino taldearen aurka. Txema Aranzaberen mutilek urduri hasi zuten partidua eta ez zuten lekua aurkitu futbol aretoan. Lehen zatia hutsean bukatu eta gero, bigarrenen bi gol jaso zituzten denbora gutxian eta lehia berdintzea lortu zuten arren azkenean penaltietan galdu zuten finalerako txartela.

PSE-EE:

Roman Rico, Rosalia Garrido, Emilio Blazquez, Amparo de Marcos, Jesus Quintana, Faustino Hernandez, Antonia Novillo, Enrique Manuel Rodriguez.

Tasak

Maiatzaren 24tik ekainaren 30 arte irekita dago 1999ko 1. sei hilabeteko zabor-bilketako eta 1. hiruhilabeteko urhornidurako tasetako agirian borondatzeko ordainketa egiteko epea.

Pilota

Zaldibiako pilotariak Herriarteko pilota txapelketatik kanpo geratu dira azken partidetan lortutako emaitza eskasen ondorioz. Zaldibitarrek Usurbil eta Lazkao taldeen aurka jokatu ondoren, azken bi talde hauen emaitzaren zain zeuden eta azkenean lazkaotarrak sailkatu dira final laurdenetarako.

Apoaren edertasuna

Datorren hilaren 19an, Koldo Izagirre eta Joseba Tapiak

Udako jarduerak

● **Udako jarduerak:** ekainaren 28tik uztailaren 23ra, 10:00etatik 13:00etara. 3-12 urte bitartekoentzat. Plazak: 90. Matrikula: 1.000 pezeta.

● **Aerobic:** uztailaren 13 urtetik aurrerakoentzat. Matrikula 2.000 pezeta.

● **Piraguismoa:** uztailaren 19tik 23ra, 10:00etatik 14:30era. 4. mailatik 18 urte bitartean, 30na laguneko 3 talde. Matrikula: 1.000 pezeta.

● **Tenisa:** uztaila edo irailaren hasieran, 10 orduko ikastaroa, 11 urtetik aurrera. Matrikula: haurrak 1.000 eta helduek 2.000 pezeta.

● **Defentsa pertsonala:** uztailan 12 orduko ikastaroa, 10 urtetik gorakoentzat. Matrikula: haurrak 1.000 eta helduek 2.000 pezeta

● **Gazteentzat kirol jarduerak:** uztailan 10 ordu. 13-16 urte bitartekoentzat. Matrikula 1.000 pezeta.

Izena emateko epea: ekainak 23. **Non:** Kultur Etxean (943 160338). Matrikula izena emateko garaian ordaindu behar da.

"Apoaren edertasuna" izenburupean prestatu duten ikuskizunaz gozatzeko parada izango dugu. Ikuskizun hau gaueko 10:30etan izango da antzokian.

Saroi Jauregi
Iñaki Gurrutxaga

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

PSIKOLOGI KLINIKOA



Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420/95

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

AURRE ZITA

☎ 943 88 72 21

☎ 910 02 00 41

BEASAIN

SEGURA

Udal hautagaiak argazkietan



Goierritarraren aurreko alean ekainaren 13ko udal hauteskundeetara aurkeztuko diren izen-abizenak eman genituen, oraingoan argazkiak. Goain EAKo hautagaiak, erdian EHkoak eta behean EAJkoak.

Hauteskunde mahaiaik. Ekainaren 13an Udal liburutegiko mahaietan egotea tokatu zaien herritarrak: 'A' mahaian Juan Carlos Garmendia, Pablo Cuellar eta Florencio Amatriain. 'B' Mahaian Feli Murgiondo, Aitor Leturia eta Nerea Zubizarreta.

Korpus eguna

Meza eta prozesioa. Ekainaren 6an 11:00etan parrokiaren emango den mezaren

ondoren aterako da prozesioa. Korpus eguneko zortzi-koa joaz aterako diren txistularien ondoren, estandarteak, aingeruak, palioa eta agintariak joango dira kaleetan zehar. Antonkalene aurrean eta Kaleguten zenbait auzotarrak jarri eta apainduko dituzten aldareetan geldialdiak izango ditu prozesioak.

Ardo partiketa eta herri afaria. Arratsaldean buruhandi eta erraldoiak aterako dira txistulariekin batera. Iluntzean ardo partiketa izango da plazan eta ondoren herri afaria.

San Joanak

Festa batzordeak gauzatua du aurtengo San Joan jaien zirriborroa eta dagoeneko in-

prentan da. Ekainaren 18, 19, 20, 23, 24, 25 eta 26an izango diren festak 4 milioi inguruko aurrekontua dute. Hurrengo alean informazio zehatza.

Kronoeskalada

Festetako egitarauaren barne, ekainaren 18an jubenilen Gipuzkoako itzuliko lehen etapa izango da. Arratsaldeko 7:30ean hasita Madalena-tik Egileorra igo beharko dute banan-banan txirrindulariek (2,1 Km). Itzuli honen aurkezpena ekainaren 15ean, iluntzeko 8etan egingo da Segurako udaletxean.

Matrikula Musika Eskolan

Datorren ikasturterako matrikula. Bertan dabiltzanek ekainaren 7tik 11ra eraman beharko dute matrikula orria beteta. Ikasle berriek ekainaren 17 eta 18an arratsaldeko 5etatik 7etara Tobeira Musika Eskolan.

Kontzertua. Ekainaren 15ean Foru Aldundiko aterpetxean ikasturte amaierako kontzertua eskainiko dute musika ikasleek. Arratsaldez izango bada ere, ordua zehaztu gabe dute.

Euskadiko Bola Txapelketa

Datorren zapatuan, ekainaren 12an, Segurako Txoritegi bolatokian. Guztira 46 bolarik parte hartuko dute, horien artean Imanol Agirre, Antonio Agirre, Martxeliño Agirre eta Jokin Izaguirre herritarrak. Bolari bakoitzak 2 botaldi egingo ditu, aldi bakoitzetan 6na bola botaz. Botaldien ordena goizeko 8etan, bertan egingo den zozketaren ondoren jakingo da. 8:30ean hasi eta 14:00 alderako bukatzea espero da. Ondoren, 75en bat lagunek Zopajale

Elkartean bazkalduko dute eta lehen hamar sailkatuei garaikurrak banatuko zaizkie.

Lehendakari saria. Maiatzaren 30ean Legazpiko 2. tandaren ondoren, Imanol Agirrek 2. Postua eskuratu zuen.

Futbola

Maiatzaren 29an jubenilek Hernaniren kontra jokatu-ko partidarekin (2-4) amaitu da futbol denboraldia. Errejonakal preferentera igo dira. Jubenilek eta kadeteek kategoriari eutsi egin diote eta infantilak ohorezko ligatik 1go mailara jaitsi dira.

Futboleko taberna. San Joanetan Elkartetxean jarriko duten tabernan turnoak egiteko jendea anima dadin dei egiten dute zuzendaritza-koek.

Labur-labur

● **Iker Agirrezabal Euskadiko txapeldunorde.** Pasa den asteburuan Gasteizen, 100 eta 300 metroan zilarrezko dominak lortu zituen. 300 metroan Gipuzkoako errekorra ezarri zuen 35'58ko denborarekin.

● **Igerilekurako tabernariak eta sokorrista.** Izenak emateko epea astebete atzeratu ondoren, gaur, ekainak 4, izango da apuntatzeko azken eguna.

● **Mendi irteera.** Kirol eskolarraren barne, finalistaren eguna izango da Andoainen ekainaren 13an. Irteera goizeko 8,30etan plazatik.

● **Madurako bariantea** ekainaren amaiera alderako inauguratuko da.

● **Valladolidtarrak,** Txutxi, Maria eta konpañia gonbidatuta zaudete San Joanetara!

Joseba Telleria

BEASAIN

Bost hautagai lehian


Ekainaren 13ko hauteskondeetan aukeratuko da datozen lau urterako alkatea. Bost hautagai izango dira lehian: EAJ-EA koalizioako Jon Jauregi; Euskal Herritarrok-eko Andoni Antxia; PSE-EEko Jose Luis Elorza; PPko Julio Herreros eta Ezker Batuako Eduardo Fernandez. 17 zinegotzi aukeratu beharko dira. Egunotan alderdi bakoitza bere programa aurkeztzen ari da. Alderdi edo koalizio bakoitzeko lehenengo 9 zerrendagaiak dituzue jarraian:



PSE-EE: Jose Luis Elorza, M. Carmen Gomez, Pablo Parra, Jose Gabriel Zurbano, Ines Elorza, Angel Perez, Ana Maria Fernandez eta Claudio Horriolo.



EAJ-EA: Jon Jauregi, Josi Insausti, Arantxa Aseginolaza, Ana Asla, Jon Berbel, J.A. Girado, Patxi Plazaola, Pello Garaialde eta Jon Olano.



PP: Julio Herreros, Jorge Juan Outeiral, Alberto Morales, Jose Manuel Herrera, M. Pilar Melendez, Patricio Moreno, Francisco Luis Via, Maria del Mar Moreno eta Jose Maria Izuzkiza.



EH: Andoni Antxia, Arrate Izagirre, Leire Lopez, Aimar Larrea, Juan Jose Lasa, Santiago Larrea, Mikel Olano, Idurre Eskisabel eta Josune Gil.



IU-EB: Eduardo Fernandez, Maria Begoña Lasa, Iñaki Saldaña, Julene Hidalgo, Jose Migel Sanchez, Estela Valencia, Tomas Parra, Nerea Santamaria eta Baltasar Valencia.

'Bada garaia!' plataforma

Bihar, ekainak 5, aurkeztuko da presoek eskubideen aldeko 'Bada garaia!' plataforma. "Legeak berak jaso eta PPko gobernua Euskal Preso Politikoei sistematikoki ukatzen dizkien oinarritzko eskubideak aldarrikatzeko" sortu da 'Bada garaia!'. Plataformak herritarren hainbat atxekipen jaso du. "Plataforma anitza da hau, non herritar guztiok daukagun gure tokitxo beasaindar presoek eskubideen alde lan egiteko". Euskal Presoak Euskal Herrira ekartzea, zigorraren 3/4ak bete dituztenak eta gaixotasun sendaezinak dituztenak askatzea aldarrikatzen du plataformak. Era honetan, herriko 6 presoek artean, Jokin Aldanondok eta Txemi Arteagak zigorraren 3/4ak beteta dituztenez, Beasainen izatea eskatzen dute eta Frantzia eta Espainiako kartzeletan dauden Josu Lopez, Juan Mari Intxausti, Jabi Irastorza eta Mikel Azurmendi lehenbailehen Euskal Herrira ekartzea.

Beasaingo Ikastolako ikasleak Udal

Liburutegian

Aurtengo martxoaz geroztik, astero-astero hurbildu izan dira Udal Liburutegira Beasaingo Ikastolako ikasleak, mota guztitako liburuen artean, munduaren lerroak zuzenago ulertzen ikastera.



Alde batetik, umeentzako espreski idatzitako liburuak ezezik, helduek darabiltzaten liburukote, entziklopedia, aldizkari eta egunkarien artean gure gizarten testu idatziak duen garrantziaz jabetzeko asmoarekin hurbildu dira. Ikastolakoek esan digutenez, izan ere, "jaio orduko ahozko hizkera deszifratzen hasteko dituzten baliapide guztiak erabiliz trebatzen baitira umeak ikastolan testu idatziak ulertzen. Ahozko eta idatzizko hizkuntza komunikazioaren ageriko eta isileko alderdiak dira, eta biak elkarri lotzen ohitzen dira, egunero, irakasleak ipuina irakurtzen dienean".

Udal liburutegain bakoitzak bere gisara interesgarrien jotzen dituen liburuak erabili ondoren, irakasleak ipuin bat irakurtzen die, eta ondoren ikasleek udal liburutegian jasotako liburuska bat osatzen dute, bertan ipuinaren izena, ipuina entzuterakoan sentitu dutena eta gaiarekin lotutako marrazkitxo bana eginez, paperak gorde dezan entzun dutenaren memoria.

Beste alde batetik, eta aurrekoarekin lotuta, liburutegira joatean zenbait balore ere asko nabarmentzen dira: ixiltasunak zenbat laguntzen duen atentzioa eta oharpena indartzen; amankomunak diren espazioetan elkarri ez enbarazo egiteko arauak eta txandak errespetatzeak duen eragina; jende askok erabili behar duen toki batean zein garrantzizkoa den gauzak, kasu horretan liburuak, bakoitza bere tokian egotea, hurrena datorrenak ere aurki dezan...

OLABERRIA

Ostatu berrria ekainaren 14an irekiko dute Izaro eta Ugutz Rubiok



Juanito Rubio sukaldari ordiziarraren seme-alabek, Izarok eta Ugutzek, hartu dute Zezilio-enea ostatuaren ardura. Ekainaren 14an inauguratuko dute ostatu berrria. Jatetxe eta hotel funtzioa beteko du; 3 jantoki, taberna eta 9 logela izango ditu. Era honetan, 6 lanpostu sortu dira Zezilio-enean. Seiak ere gazteak, 20-25 urtekoak dira.

Izaro eta Ugutz Rubio izango dira ostatuaren gestioa eramango dutenak eta sukaldaria berriz, Rakel Auzmendi ordiziar gaztea izango da. Donostiako Sukaldaritza eskolan ikasia eta Juanito Rubioren Oianguko sukaldean eta Donostiako Urepelen aritua da.

3 jantokitan banatu dute ostatua. Lehenengo solairuan, 40-50 bat lagunentzako jantokia izango da, karta zerbitzuarekin. "Oiangua eta Rubioren jatetxearen arte-

koa izango da janariari dagokionean. Rakel, sukaldariak, Donostiako Urepel jatetxe handian ikasitakoareki ikuitu berezia emanaz. Arrainak eta haragiak brasan dastatzeko aukera izango da. Gainera garaian garaiko produktuekin osatuko dugu karta: onddoak, barazkiak era ezberdinetara, entsalada epelak, ahate produktuak... Kartaz aparte 'dastatzeko menua' ere egongo da", argitu digute. Kartan aurki ditzakegu beste zenbait plater: baserriko oilaskoa, arkume errea, solomiloa oportuan foiearekin... Bestalde sagardotegian astebukaerako menuak egongo dira: sagardotegiko menua eta menu berezi bat, Taberna handia da eta bertan emango dira eguneko menuak astelehenetik ostiralera, baita enpresa menuak ere. Beheko solairuan azkenik, sagardotegia jarriko dute. 100 bat lagun-

tzako lekua egongo da, laguntaldekak gustora biltzeko txokoa.. San Joan jaietan esaterako, otordu bat baino gehiago emango dituzte. Uda partean, kanpoan terraza jarriko dute.

9 logela

Jantoki eta tabernaz gain, logelak ere eskainiko ditu Zezilio-enea ostatuak. Bigarren eta hirugarren solairuetan, 9 logela prestatu dituzte.

Asteazken zehar, enpresa munduko jendeari eskainiko dizkiote logelak eta asteburuetan, turismoari. Goierri lotarako azpiegitura arloan duen hutsunea betetzen lagundu nahi du.

Areto pribatua edo bilera gela ere izango du Zezilio-eneak, batez ere enpresei zuzendua, bilera eta enpresa bazkariak egiteko.

Rubiotarrak pozik

Juanito Rubiok seme-alabei Zezilio-enea ostatuaz arduratzeko proposamena egin eta gustora onartu dute Rubio gazteek. "Txikitatik ezagutu izan dugu ostalartza mundua. Orain karrera bukatuta, irtenbidea izan da guretzat", esan digute gazteek. Gurasoak ere gustora dauzkate, jarraitzaileak badituztela-eta. Lekua gainera primerakoa dela diote hiru-

Lau alkategai aukeran

Inoiz ez bezalako alkategai aukera dago herrian ekainaren 13ko udal hauteskundeetan. PP, Olaberriko Herri Elkarteak, Euskal Herriarrok eta PSOE izango dira alkate berria eta beste 6 zinegotzi aukeratzeko lehian. Hautagaiak hauek dira:

● **PP:** Jose Miragaya, Concepcion Hernaiz, Concepcion Gomez, Pablo Enrique Garcia de Novellan, Alberto Azcon, Jose Maria Peinado eta Maria Luisa Cava de Llano.

● **Olaberriko Herri Elkarteak:** (Independenteak) Txomin Mendoza, Lourdes Estensoro, Belen Parra, Jose Bernardo Aldasoro, Joseba Iñaki Etxeberria, Pedro Ignacio Heras eta Jesus M. Imaz.

● **Euskal Herriarrok:** Asier Mujika, Jose Angel Munduate, M. Elena Uranga, Xabier Lasa, Nagore Goiburu, Iñigo Urkiola eta Igor Heras.

● **PSOE:** Fernando Boada, Maria Dolores Acosta, Joaquin Sanchez, Gregoria Espada, Andres Moreno, Jose Collado eta Enrique Lorenzo.

Nafarroa
Etorbidea, 9

BEASAIN

☎ 943 88 94 82

IUES ROTHERS
BEASAIN

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. Koleg. Zkia. 3998

BIZKARREKO MINAREN ESKUZKO TRATAMENDUA

R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALIA, MIGRAINA, ARTROSIS.

Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53 - 943 88 92 22

Andra Mari, 13 behea ez. - BEASAIN

ZEZILIONEAT



OSTATUA



Ugutx Rubio, Rakel Auzmendi eta Izaro Rubio

**LASTER
ZABALIK**



OSTATUA

**HOTELA
JATETXEA
SAGARDOTEGIA
TABERNA**

OLABERRIko KASKOAN

Ataun



*Etorkizuna
eraikiz*

errigintza

ATAUN

haize berriak



bozkatu



ATAUN

Ataundarrak bikain joan den asteburuan

Irun eta Amasa izan ziren maiatzaren 28an gure poza-
ren lekuko. Alde batetik eta
nire aurikuspen goiztiar-
giak baieztatu, aurreko zen-
bakiko 'hankasartzeagatik'
diot hori, 'Ataun Genelarik
2. postatu ziurtatu zuen eta
ondorioz, maila autonomiko-
ra igoera.

Aurreko larunbatean 'Gu-
bi' ren aurka jokatu partidua
galdu ondoren, guztiz eraba-
kiorra zen ostiralerako parti-
dua. Hasiera batean marka-
gailua 'Pasteleria Agirre'-
ren aldekoa bazen ere, 'Ge-
nerali'k, bere jarraitzaile su-
tsuen laguntzaz, partiduari
buelta eman eta 4 eta 2ko
emaitzaz, irabaztea lortu
zuen Irunen. Amaiera ezin
hobea dudarik gabe, talde
egin duen denboraldi bikai-
narentzat. Zorionak guztioi!

Bestalde Amasan, 14 ur-
terarteko gaztetxoek Gipuz-
koako Eskolarteko Bertsolari
txapelketaren finala ospatu
zen. Irabazle, iaz bezala,
Goierriko taldea suertatu
zen. Talde honetan ziren lau
ataundarren lana bikaina izan
zen eta honela, bat-bateko
saioan gai bat eman eta ber-
tsoa botatzen, Aitzol Mun-
duate eta Oier Zurutuza izan
ziren txapeldun. Lau oin
eman eta bertsoa botatzen
berri, Haitz Aierbe eta Iban
Urdangarin egokitu ziren
txapeldun. Gainera, Aitzol
Munduatek bertso onenaren
saria jaso zuen eta beraz,
Mungian izango da ekaina-
ren 30ean ospatuko den Eus-



Aitzol finalean izango da.

kal Herriko txapelketan.

Bertso paperetan oster, 3. eta 4. mailakoen taldean Ioritz Zurutuzak aipamena lortu zuen. 7. eta 8. mailako-
enean Aitzol Munduatek le-
hen saria jaso zuen.

Bertso munduan jarraituz,
eta herriko bertsolari gazteen
mailaren adierazgarri, Az-
koitiko Xabier Munibe Ber-
tso paper lehiaketan, Haitz
Aierbe izan zen irabazle. Iban
Urdangarin 3. postua
eta Oier Zurutuzak 4. postua
lortu zuten.

Hitzaldiak eskolan

Hezkuntzaren garrantziaz eta
gurasoen jarrerak haurren-
gan duen eraginaz jakinaren
gainean izanik, joan den as-
telehenetik hasi eta ekainean
zehar, Guraso Elkarteak hitz-
aldi batzuk antolatu ditu.

Ekainak 2, asteazkena:
'Ipuinaren garrantzia hau-
rrengan. Ipuinak kontatzeko
eta irakurtzeko baliabideak
eta kontatzerakoan egiten di-
ren akatsik nabarmenenak'.
Hizlaria: Pello Añorga.

Udal hauteskundeak

Ekainaren 13an ospatuko diren Udal Hauteskundeetarako
hautagaien zerrendak aurkeztu dira jada. EAJ eta Eak Herri-
gintzaren hautagaitza babestuko dutela jakinari dutenez, bi
talde aurkeztuko dira Ataunen: Herrigintza eta Euskal Herri-
tarrok.

Herrigintza: Aitor Auzmendi Asurabarrena, Jesus Goiko-
etxea Etxeberria, Jaione Munduate Mujika, Iñaki Eskisabel
Zurutuza, Santi Etxeberria Goikoetxea, Pello Agirre Arrati-
bel, Rosa Goñi Jaka, Xabier Eskisabel Izagirre eta Ainhoa
Galparsoro Sarriegi. Ordezkoak: Zelestino Agirre Begiris-
tain, Remedios Arrondo Begiristain eta Bixente Dorronsoro
Mintegi.

Euskal Herritarrok: Aitor Aldasoro Sukia, Oihana Mun-
duate Dorronsoro, Lurdes Etxeberria Arrese, Jose Mari Ba-
randiaran Begiristain, Jexux Arin Baztarrika, Nikolas Zuru-
tuza Aierbe, Maixa Goikoetxea Munduate, Mikel Egiguren
Imaz, Santi Aierdi Zurutuza, Joxe Urrestarazu Munduate,
Xabier Agirre Begiristain eta Pilar Barandiaran Barandiaran.

Ekainak 9, asteazkena:
'Seme-alaben garapen psiko-
afektiboa eta gurasoen zere-
gina hauen hazkuntza proze-
suan' (Haur Hezkuntzari zu-
zendua). Hizlaria: Amaia
Vazquez.

Ekainak 16, asteazkena:
'Seme-alaben garapen psiko-
afektiboa eta gurasoen zere-
gina hauen hazkuntza proze-
suan'. (Lehen Hezkuntzara
zuzendua).

Hitzaldi guztiak eskolan
izango dira, arratsaldeko
6etan. Haurtzandegi zerbi-
tzua ere eskainiko da.

V. Ataun Aztergai Beka

Maiatzaren 13an, Udaletxe-
an bilduriko epaimahaiaren
erabakiz, aurtengo beka Ai-
tziber Murua Uribe-Etxebe-
rriak aurkezturiko 'Ataungo
baserrien ikerketa histori-
koa' lan proiektuarentzat

izango da. Epaimahaiak, era
berean, bere esker ona azal-
du zion Amaia Auzmendi
Arrueri aurkeztu zuen lan
proiektuagatik: 'Ataun San
Martingo jaietan egiten den
Jentilen-Etorrerari buruzko
azterketa'.

Garai berean jaso genuen
Lurdes Altunaren lan emai-
tza ikusgarria biltzen duen li-
burua ere, 'Kablea Ataunen'.
Gogoratu Lurdesek II. Ataun
Aztergai beka jaso zuela.

Labur-labur

● Joan den igandean San
Martingo 5 haurren Lehen
Jaunartzea ospatu zen.

● Joan den astean hil zen
Arin-Etxeberriko Hipolito
Goikoetxea. Doluminak sen-
diari.

Agurtzane Bikuña

AMEB



Sagardotegia

Erretegi bezala irekita

- * Eguneroko menuak
- * Asteburuko menu bereziak
- * Karta zerbitzua
- * Sagardotegiko menua
- * SAGARDOA TXOTXETIK
- * Plater konbinatuak

Zubierreka, 9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO

LEIAR

KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70

BEASAIN

ZEGAMA

EA-EAJ, EH eta PP aurkez-tuko dira datorren ekainaren 13ko udal hauteskundeetan. Zerrendako lehenengo 5ak hauek dira:

EH: Jose Ramon Agirre, Angel Carlos Gomez, Josune Irastorza, Andres Urbizu, Jose Javier Arrondo.

EA-EAJ: Juan Inazio Galdos, Jon Ormazabal, Carlos Ormazabal, Miren Arantzeta Albizu, Nikolas Zabaleta.

PP: Nicolas Ivan Sanchez, Lara Henzanqui, Ana Gomez, M. Luisa Espuny, Julio Fernandez. (PPk aurkeztutako zerrendan dauden guztiak ezezagunak dira).

Hauteskunde garaia delarik, ekitaldi desberdinak dau-de aurrikusiak. Ekainaren 6an, 13:00etan, egitarauaren aurkezpena egingo du EA-EAJ koalizioak. Egun berean, EHk antolatuta, bazkaria izango da herriko plazan.

Arantzazuko peregrinazioan

Joan den maiatzaren 23 eta 24an burututako peregrinazioan giro ederra izan genuen, egun osoan ateri egin zuen. Aurtengoan txiste kontalari eta bertso ugari izan

Artzainak mendi-rantz

Udaberriro zegamarrok aspaldiko ohitura bitxi bat geure herrian bizitzeko aukera izaten dugu, trashumantzia edo uda parterako ardiak mendira botatzea deritzona eta negu partean ardiak kostaldera edo beheko zonal-detara jaistea. Maiatzaren hasieratik hainbat artzainek Zegama zeharkatu ondoren, Urbia eta Partzuergoko mendietara jotzen dute.

Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban egiten den trashumantzia erdi mailakoa da baina Pirinioetan egiten denari trashumantzia handia deritzo. Bien arteko desberdintasuna egiten den distantzia da. Ganadua etxeratzen edo domestikatzen hasi zene-tik artzainak eguraldi hotzari ihes egiteko asmoz trashuman-tzia egitera behartua ikusi du bere burua. Ohitura hau adituek diotenez Neolitiko garaian hasi ziren eta orduz gero bide be-rak erabiltzen dituzte artzainek trashumantzia egiteko, hauei "altzubideak" edo "artaldebidet" deitzen zaie.

Gaur egun, kasu askotan, errepidean dagoen arriskua dela medio, trashumantziaren zati handi bat kamioiez egiten da.

genituen. Sukaldarien lanari esker, aurtengoan ere salda eta kafe eder askoak hartze-ko aukera izan genuen.

ipu in lehiaketa

Kasinoko XI. Ipu in lehiaketa-ko irabazleak: **1go maila:** Idoia Zubizarreta eta Oihana

Agirrezabalaga. **2. maila:** Irati Irigoras eta Erika Urzelai. **3. maila:** Iñaki Castro eta Iker Irastorza. **4. maila:** Maialen Arizkorreta eta Ander Ormazabal. **5. maila:** Irati Badiola eta Naroa Larrea. **6. maila:** Eñaut Alberdi eta Borja Urzelai.

Hiru zerrenda udal hauteskundeetan



Kontzertuak

● Haur abesbatzen III. Kontzertua. San Martin parro-kian, 18:00etan. Getxoko Txori Alai, Zarauzko Zarautz Txiki eta Zegamako Orkatz Txiki abesbatzak izango dira.

● Tobera musika eskolaren ikasturte amaierako kontzer-tua. San Martin parro-kian, 18:00etan. Kontzertuan urte-ro errifei dagokion zozketa egingo da.

Musika eskolako matrikulazio epeak

Ekainaren 7tik 11ra, egungo ikasleentzat matrikula egite-ko epea. Ekainaren 17an eta 18an, ikasle berrientzat. Or-dutegia: 17:00etatik 19:00etara, Kultur etxeko bulegoan.

Futbito txapelketa

Ekainak 5: Xerora – Haizea; Otxaurteko Benta – Tauriton; Notxingan – Tripi eta Shalky – Aitzkorpe. **Ekainak 12:** Aitzkorpe – Tripi; Shalky 07 – Notxingan; Otxaurteko Benta – Xerora eta Tauriton – Haizea.

Eduarne Albizu

LEGORRETA

Bihar, ekainak 5, ospatuko da Korpus eguneko jaia.

Goizeko 10etan, diana izango da dultzainariekin. 11,30etan, krosa izango da Bilkoin elkarteak antolatuta. 1,30etarako dago iragarrita sari-banaketa.

Arratsalde partean, 6etan, ardo dastatze txapelketa izango da. Ordu berean hasi-ko da Ordiziako Laguntasu-

na Errondailaren kalejira. 6,30etan Udalak ardoa bana-tuko du herritar eta bisitari guztientzat. 7,30etan, usa-riozko merienda izango da plazan.

Iluntzeko 8,30etatik 10etara, Laguntasuna Erron-dailaren emanaldia izango da eta ondoren, goizalderarte, kalejira eta dantza saioa Iraunkorrek txarangarekin.

Korpus eguna bihar

Garagardo festa

Maiatzaren 29an Garagardo festa ospatu genuen herrian. Festa Olaso, Pikondo eta Guadalupe taberneak antolatu zuten. Bertan ohikoez gain, zapore desberdinetako gara-gardoak dastatu ahal izan ge-nituen. Tabernariet edariez gain jatekoa ere eskaini zu-ten jendea gehiegi aztoratu ez zedin. Horrela, nahi zuen guztiak kodiloa, saltxitxak

eta gazta jateko aukera izan zuen. Azkenean festa goizal-derarte luzatu zen. Bigarren urtea bada ere festa hau anto-latzen hasi zirela, arrakasta itzela lortu du inongo duda-rik gabe. Korpus eguneko festa gainean daukagula kon-tuan hartuta ez zen entrena-mentu txarra izan aurreko la-runbatekoa.

Josune Amondarain

ORMAIZTEGI

Hurrengo lau urterako alkatea aukeran



Goian EAJ-EAko hautagaiak eta beheran EHkoak.

EAJ-EA koalizioa, EH eta PP alderdiak aurkeztuko dira ekainaren 13ko udal hauteskundeetara. Bi talde abertzaleen argazkiak eta zerrendaburuak dituzue jarraian; PP-koak ez dira herrikoak.

EAJ eta EAk zerrenda bateratua

Iñaki Maiora Oria, azken hau urteetako alkatea da zerrendaburua, EAJ eta EA alderdiek datorren ekainaren 13an

ospatuko diren udal hauteskundeetan aurkeztutako zerrendan. Gainerako zerrenda herritar hauek osatzen dute: Jon-Mikel Murua, Iñaki Ur-dangarin, Xabin Ezkurdia, Lierni Ormazabal, Juan Karlos Leturia, Jose Manuel Elizegi, Rosario Sagarna, Ane Lasa, Martin Alberdi, Mari Kruz Gaztañaga eta Jose Ignazio Zuazola.

Euskal Herritarrok

EHkoek osatu duten zerrendan emakumezkoa da buru: Oihana Oñatibia. Gainerako zerrendakideak hauek dira: Igor Elortza, Roman Larena, Nerea Uribe-Etxeberria, Maria Sagrario Lerma, Asier Etxarri, Arkaitz Iurrita, Kaetano Iraeta, Migel Zumarraga, Julian Zabala, Mikel Jau-regi eta Pedro Jaka.

Aitziber Murua



Zortzi haurrek egin dute lehenengo jaunartzea

Aurtengoan zortzi haur izango dira gure herriko parrokan lehenengo jaunartzea egin zutenak. Lehen aldiz jaunartzea hartzeko ospakizuna igandean eguerdiko 12etatik aurrera ospatu zen Ander Deunaren parrokan. Bost mutil eta hiru neska izan ziren altarera hurbildu eta lehen aldiz eukaristian parte hartu zutenak: Aitor Alberdi, Eneritz Alberdi, Borja Argiñano, Gorka Arratibel, Beñat Lapizondo, Jaione Lasa, Iker Lobato eta Ane Mujika.

ITSASONDO

Ekainaren 13an ospatuko diren udal hauteskundeetarako zerrendak aurkeztu dituzte jadanik EH eta PP alderdiek. Jose Mari Otegi da EH alderdiak alkatetzarako aurkeztu duen hautagaia, PP alderdiko zerrendaburua aldiz, Maria Luisa de Azpiroz da.

Hasiera batean ekaineko hauteskundeetarako EH alderdia bakarrik aurkeztuko zela uste bazen ere, azken

unean ezusteko handia sortu da Partidu Popularrak bere zerrenda aurkeztu baitu. Lehen aldia da PP udal hauteskundeetara aurkeztu dela, orain arte sekula ez baitu zerrendarik osatu. Hauteskunde hauetarako PPko zerrendan agertzen diren guztiak kanpotarrak dira.

PP eta EHren arteko lehia

Alkatea epaitua izan da

Maiatzaren 25ean epaitu zuten Donostiako Auzitegian Jose Mari Otegi Itsasondoko alkatea. Itsasondo udal intsumitua izatea eta ejerzito espainiarrari laguntza ez eskaintzea izan ziren Itsasondoko alkatea epaitzeko arrazoiak. 15 egun barru jakingo da zein den epaketaren sententzia.

Ibai-ondo industrialdea

Maiatzaren 13an udaletxean egin zen udalbatzarrean gertoki inguruan egin berri duten industrialdeari *Ibai-ondo* izena jartzea erabaki zuten. Pabilioiko obrak bukatuak daude dagoeneko eta denak salduak daude gainera, beraz, laister industrialdea mar txan jarriko dela pentsatzen da.

Nagore Etxeberria

Juanito Dorronsoro: "Publikoaren eragina badu, epaimahaiaren baitan ere izango du ongi kantatzeak"

Juanito Dorronsoro, lehendik ere oso ezaguna, aurtan, udaberriaren zantzuakin batera, kukuaren etorrera baino apur bat lehenago, protagonista izan genuen komunikabideetan.

Martxoaren 6an omenaldia eskaini zion Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak, Ohorezko Bazkide izendatu zuelarik, bertso doinuak biltzen egin duen lan handiarengatik. Hori dela eta, jende askoren deiari erantzun behar izan zion Juanitok eta guk ere nahi genituen haren hitzak jaso. Kontestu horretan egindako elkarriketa da orain zuei eskaintzen dizuegun hau.

-Martxoaren 6an Bertsozale Elkarteak ohorezko bazkide izendatu zintuen. Zer sentitu zenuen hori jakinarazi zizutenean, eta zer moduz pasa zenuen iluntzea?

-Poza sentitu nuen. Gauza handia da zure lanaz norbait akordatu dela jakitea, aintzakotzat hartu zaituztela ikustea. Egia esan, badu beste alderdi bat ere: alegia, edadean aurrera zoazela. 63 urte badituz, eta, omenaldiak-eta egiten hasiz gero, alde batera, malo! Osasunez ere pattal samar gabiltza



eta... Baina gustura pasanuen egun hura, giroa ere aparta baitzen; omenaldi xumea, niri gustatzen zaidan bezalakoa; bertsolari guztien izenean Imanol Lazkanoren besarkada, bertso jaialdi ederra... Gero, alde edo moldez, gure herri eta eskolakoa den Maiaren eskaintza. Elkarteak ere inpresio ona egin zidan, gauzak ondo ari dela egiten iritzin.

-Zer meritua aitortu dizu Bertsozale Elkarteak?

-Nik osatutako doinutegia aipatu dute. Urte askotako lana da izan ere. 2.200 doinu dira publikatuak eta beste 500 badituz argitaratzeko prest.

-Aise esaten da 2.700 doinu. Ez zen lan erraza izango.

-Oso lan zaila izan da, hoge urteko jarduna. Estraineko 100 edo 200 erraz osatzen dira, baina jasotzen duzu

beste bat, eta zalantza handiak dituzu lehen jaso ote duzun. Bestalde, antzeko doinuak ere asko izaten dira. Hurrena, berriz, izen jakin batekin katalogatzen duzu, eta beste bertsolariaren batekin lehenago erabili zuela ohar-tzen zara. Gainera, doinu asko inon idatzita ez zeudenez, solfeorik gabe ez zegoen kontrolatzeko modurik eta hori egin behar izan dut.

-Doinu horiek nork sortuak dira? Bertsolariak beraiek?

-Hori esatea ere zaila da, baina bertsolariak berek sortuak ia batere ez. Gehienak herrikoiak dira. Beste gauza batekin ere ohartu naiz: Azkue eta Aita Donostiak bildutako doinuak ere bertso doinuak dira. Bestalde, zenbait doinu eliz kutsukoak da. Askotan, ez dakigu Elizak heritik hartu duen ala alderantziz. Doinu batzuek gregorianoarekin ere badute lotura. Jakina, gregorianoa bera Italiako mendiko herri

kulturatik hartu zuen Elizak, Erdi Aroan. Doinurik gehien asmatu duen bertsolaria Amuriza da.

-Bertsolariek erabiltzen dituzten doinuak konplexuak al dira?

-Ez dira oso konplikatuak. Doinuaren ardatza puntua da. Asko errepikatzen dira. Egitura, normalean, lau puntukoa bada, ABAB izaten da. Bostekoa denean, aldatzen da apur bat: ABCAB edo horrelako zerbait izan liteke.

-Doinuari zer garrantzi emango zenioke zuk bertsolaritza?

-Izugarritzko inportantzia du, batez ere pedagogia aldetik: errazago memorizatzen da, kantuarekin sortu ere errazago egiten da, eta entzuleak ulertu ere bai; gainera doto-reago geratzen da. Askotan gertatzen da bertsoa, kantatuta, ona eta paperean pasatokoan hainbeste balio ez.

-Ahots oneko bertsolariak abantaila al du, adibidez, txapelketan, epailearen aurrean?

-Dudarik gabe. Hala behar du, gainera. Publikoaren eragina badu, epaimahaiaren baitan ere izango du ongi kantatzeak. Bertsoa aho ez-tiz kantatu eta belarrarian gozo sartzea gauza ederra da. Adibidez, Lasarte baten bertsoa, baju-bajutik kantatuta,

Argitarapen honen edizioak laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*gizarte-ekintza
obra social*

zeinen ezti geratzen zen. Bertsolaria kantaria ere bada, eta kasu batzuetan nahikoa profesionala, gainera.

-Baina zu ez zara doinu biltzaile bakarrik izan. Bertso eskolan ere jardun duzu. Adibidez, Zumaian. Zer duzu esateko arlo horretan egin duzun lanari buruz?

-Bertso eskola, nire kasuan, ikastolarekin lotua dago. Han hasi nintzen, 1971 aldera, etxeko pianoa eraman eta umeeekin bertsotan. Gero ikastolan ongi ibiltzen zirenekin ordu batzuk gehiago ematen genituen kanpoan. Segituan konturatu nintzen materiala prestatu beharra zegoela. Gogoan dut Euzkitzek nola esan zidan: "Zu zara, orduan, Juanito Dorronsoro. Zure liburuekin, gauetan, hamaika ordu pasatzen dut nik". Aze poza eman zidan! 1980an Eskolarteko Lehen Txapelketa antolatu genuen. Baina ez nintzen bakarra; elkarren berri batere jakin gabe, ordurako, Patxi Goikolea ari zen Arrasate aldean, eta Hernanin ere bazebiltzan zerbaite-tan.

-Batzuek bertso eskolak laborategiekin konparatzen dituzte. Hori horrela al da?

-Nik oso oinarritzko lana egin nuen. Guk ez genuen teknikaren alde hori asko lantzen. Garbi esanda, nik ez dezaket hori ukatu, eta ez dezaket baieztatu. Gaurko bertso eskolek ez dakit nola funtzionatzen duten.

-Baina bertsolaritza ez al dago deskontestualizatu-ta? Hau da, beste kontestu soziokultural bateko fenomeno izanik, garai post-modernoan transplantatua. Horrek ez al du esan nahi euskal kulturak gutxi aurreratu duela?

-Hau problema serioa da, bai. Inguruko gizarteetan, badirudi, idatzia-aurrera egin ahala ahozkoa desagertu egin dela. Gure kasua izan daiteke euskaraz mintzatu bakarrik egin garelako, eta idazten oso berandu hasi garelako. Egia da guztiz medio ruralean sortua dela bertsolaritza eta kaletartu egin zaigu. Hori zergatik? Amurizak lehenengo txapela lortu zuenean, eztabaida gogorra sortu zen, batzuentzat ez baitzen bertsolaria. Baina atzetik gehiago etorri dira. Dena dela, eztabaida, berez, zaharragoa da. 1935ean ere, Basarrik txapela atera zuenean, gauza beretsua gertatu zen. Manuel Lekuonak berak ere aipatzen du logika arrazoituaren belaunaldia zetorrela eta beldur zela horrek ez ote zion bertsolaritzari kalte egingo.

-Bertsolaritza herri xumearen espresabidea baldin bazen, eta bertsolaria orain ilustratu baldin bada, zein espresabide geratzen zaio herri xume horri, adibidez, baserritar petoari?

-Soluzioa jende xehe hori gaurko kulturen kutsatu eta maila igotzen saiatzea da. Telebistaren zibilizazioa honetan, globalizazioarentz bagoaz, erreferentzia eta munduari buruzko jakintza homogeneizatzea ere ez da harritzekoa. Hortik ikusten dut nik bidea.

-Gaur, apropos, atzeko aurrera planteatu dut elkarrizketa hau. Eta orain bertsozaletu zinen garaietara jo nahi dut. Nondik dator zure bertsozaletasuna?

-Gaintzan egin nintzen bertsozale. 23 urterekin joan nintzen apaiz hara, sano-sano eta misiolari-misolaria.



Nik ez dakit haiei ezer irakatsi nien, baina haiengandik ikaragarri ikasi nuen. Nire lanarekin eta herriarekin maiteminduta bizi izan nintzen bost urte haietan. Bertsozaletasuna izugarria zen han. Txapelketa bat ere antolatu genuen. San Mielelako festarik handienetakoa Basarri eta Uztapide eramatea izaten zen. Gaztedi handia zegoen orduan Gaintzan eta ni primeran konpontzen nintzen.

-Gero Itziarra, handik Zumaira, eta azkenik apaiz izateari utzi egiten diozu. Agian fedea hoztu?

-Fedea galdu ez; konpliatuagoa da. Beste prozesu bati ekin genion: batetik, apaiz langile izan nahi genuen; bestetik, kristau komunitateak sortu, eta, hirugarren, garai hartako borroka sozial eta politikoarekin lotu hori guztia. Jesukristoren benetako mezua zabaltzea zen gure nahia. Kristau komunitateak sortzen ahalagindu ginen, baina ez genuen asmatu. Gu herri Gaztedian ibiltzen ginen. Gero ikastola giroan sartu nintzen, eliz instituzio-tik aparte geratu. Nik nire erara kristau fedean segitzen dut. Lehengo lagunekin bildu ere bai.

-Hortaz, apaiz izandako eta apaiz lagunekin biltzen ja-

-rraitzen duzu eta kristau izaten ere bai. Nola ikusten duzu kristautasunaren etorkizuna edo, oro har, erlijioare-na?

-Nik ondo, lehen baino argiago daude gauzak. Noski, oraindik ere alienazio arriskua badago Elizan. Instituzioek beren burua defendatzen jotzen dute. Oraindik botere handia du Elizak eta fedeak konpromisoa eskatzen du, terjibertsatu gabe Jesusen hitzari segitzea. Bada beste gauza bat ere: oraingo bokazio krisia positiboa iruditzen zait. Berez aldatu nahi ez dituen gauza asko, derrigortuta aldatu beharko baititu Elizak, adibidez emakumeak apaiztea edo apaiz ezkonduak onartzea.

-Aizu, erlijioaz eta Elizaz ari garelarik, zu Anjel Sukia kardenalaren lehengusua ere bazara. Zer esango zenioke gaur mahai batean berakin bazkaltzen ari izango bazina?

-Oso bide deberdinak jorratu ditugula. Baina mundu honetan denetarik behar da, eta elkar errespetatu dezagula. Beste abildade batzuekin batera, oso argia eta langilea ere izan da Anjel Sukia.

-Ezkonduta zaude, baina aitonduta oraindik ez, ala?

-Ez, baina seme-alabak baditut, 20 eta 18 urtekoak. Bata Arrasaten eta bestea Eskoriatzan ari dira ikasten. Oso pozik nago familiarekin, horretan zorte handia izan dut.

Mila esker eta urte askoan horrelaxe segi dezazula lanean, musika eta bertsolaritza uztartzen, Ataungo seme horrek, Zumaiako itsas herrian.

Rufino Iraola



1982ko ordiziarrek

Ibaia Zurutuzak bidalitako argazkia da honakoa eta 1982an jaiotako ordiziarrek azaltzen dira bertan.

Goian, ezkerretik eskubira: Estitxu Lorenzo, Iker Mitxelena, Ander Zubiarrain, Iñaki Souto, Xabier Mendizabal, Iban Sabino, Ana Mari Larrañaga (irakaslea), Ainhoa Trabanca, Izaskun Garin, Tania, Irune Valmaseda, Ander Urdangarin eta Migel Angel.

Beheran: Leire Rodriguez, Ibaia Zurutuza, Haritz Redondo, Aitor Garate, Eguzkiñe Salbide, Sarai Paskual, Leire Garmendia, Haritz del Rio, Alexander Mate, Iker Jauregi eta Gorka Hernandez.

VOLVO

 **TOYOTA**



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



× LEIHOAK, ATE-
AK eta abar

× ESKAILERAK
NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55



MUJKA

LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



First

Emakume orok merezi du lehena izatea.

Lirain
LURRINGEGIA

ORAIN ORDIZIAN ERE ZABALIK
Plaza GARAGARZA, 1 - ORDIZIA



Van Cleef & Arpels
PARFUMS DE JOAILLIERS

UDA HONETAN, ANTZIZAR KIROLDEGIAN MURGILDU ZAITEZ UDA HONETARAKO AUKERA FRESKAGARRIENA

Uda honetan, murgildu zaitez imagina ditzakezun ariketa freskagarrienetan: Igeriketa hastapen eta hobekuntza ikastaroak, tenisa, kolonia txikia, kirol kolonia, kirol festa, kirol abentura, zaldiketa ikastaroa, abentura naturan, piraguismoa, arkua, eskalada, aerobio, fitness, terapeutikoa, soinketa, mant, 3en adinekoentzako iharduera bereziak...



BEASAINGO UDALA



KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA
Instituto municipal del deporte

EASAIN



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Juventud y Deporte



ANTZIZAR
KIROLDEGIA